

SEGURAKO ELIZ ERAKUNDEEN ETA KRISTAUARTEAREN HISTORIAZ

Joseba INTXAUSTI REKONDO

Orrialde hauetan aztertuko dugun gaiari heldu aurretik, egoki izango da irakurleari atariko argibideren bat edo beste ematea, aurkeztuko duguna nondik nora joan doan erakusteko.

1. SARRERA-OHARRAK


Herrien historian, gizaki eta gizarteek beren bizitza eta azalpen erlijiosoak erakutsi izan dizkigute, gizadiaren garai zaharrenetatik hasi eta gaurdaino, gure inguruetan eta mundu zabalean. Hortaz, erlijiotasuna giza historiako datu unibertsalenetako bat izan da¹.

Dakigunaren arabera, Euskal Herrian ere bizirik ageri da erlijiotasun hori, eta Historiak bezala Etnografiak izaera edo gertaera erlijioso horren argibideak bildu izan ditu, Ekain edo beste aztarnategietatik hasi eta gure egunak arteko azalpenetaraino².

Segura eta Seguraldean, belaun guztietako segurarrek ere ibilera erlijioso hori bizi izan dute, Historiaurrean lehenik eta Kristautasunaren barruan gero, azkeneko mila eta gehiago urtetan³. Horrekin esanda dago, beraz, erlijiotasun horrek modu eta izan-modu ezberdinak eta aldakorrak izan dituela gure artean ere⁴.

Traszendentiaren alde hau, herriak berriaz bizi izan du bere sinesmen-bizitzetan, batzuetan oso libreki eta bestetan antolaera sozial bateko arau onartu edo ezarrien bidetik. Hau da: jatorrizko edo berezko herri-erlijiotasuna —beti ere, gutxi-asko kodetuta bizi izandakoa— mendeen harran Erakunde erlijiosoetan eratu izan da; gure kasuan, Eliza kristau katoliko erromatarra suertatu da erlijiotasunaren garai berri honetan nagusitu dena.

Ondoko orrialde hauetan, batez ere erlijiotasun erakundeztatu horri buruz jardungo dugu, berau baitugu ongien agirizaturikoa, hainbat aldetatik artxibo-paper eta dokumentuetan deskribatzen dena. Herriko eliz Erakundeetako artxiboetan, gure Diozesi izandako artxiboetan (Iruñekoa da gurea batik bat), Gasteiz nahiz Donostiako Eliz Agiritegian edo Segurako Udal Artxiboko eliz sailean daude gure erlijio-bizitzaz ari diren pape-rak. Erakundeetako dokumentazio hori gorabehera, esan beharra dago erlijiotasuna (gutziz libre eta bakartia izan, nahiz ofizialtasun sozial batean bizi) bereziki norberaren baitako gertakaria dela, barnekoa, hain zuzen sarritan oso paper idatzi gutxi utzi izan duen esperientzia pertsonala; hemen, sinesmen-historia isil horretaz ez dugu deus esango, baina arazoa azpimarratuta utzi nahi dugu, aurrera pasa baino lehen.



Bataio-liburuak: Segurako herritarren kristau sinesmenak Bataioan izan ditu bere erroak

Erlijiotasun erakundetzatua (=“Eliza”, esan dezagun) gertaera sozial orokor eta iraunkorra izan zaigu euskal gizartean ere; beraz, gizarte erlijiosoaz, edo hobeto esan, *erlijioaren alde sozialaz* hitz egingo da lerro haue-tan, izendapen-molde hori bere esanahi zabalean ulertuz, Fede, Sakramen-tu eta Liturgiatik hasi eta Udalaren eliz ekonomiaraino hel daitekeen deskribapena, esan nahi da.

Esan dugu Eliza izan dela segurarren erlijiotasuna gutxi-gutxienez azke-neko milaurtekoan moldatu, ondu eta hezi duena; hortaz, herriko eliz Era-kundeei loturik dago gure aurrekoen erlijiotasuna, bertako Parrokiei eta bestelako eliz Erakunde eta Elkarteei, noski, baina baita herriko bizitza zibileko hainbat Erakunde (Udaletxea edo Kontzejua), Elkarte edo Lagu-narteetako alde erlijiosoari ere, izan ere Segurako Eskola, Ospitale, Fun-dazio, etab. aldi berean errealitate erlijioso ere izan baitira, Kristandadea deitu izan den gizarte-moldara sozio-erlijiosoaren baitan. Gaurko gizarte sekulartuaren aurretik (azken berrogei urteetako kontua da gehienbat se-kulartze hori), eliz bizitza eta gizartekoa, biak, elkarrekin batera eta elka-ri begira eratzen ziren euskal gizartean.


Batasun sozial eta erlijioso hartan, Elizaren pisua labor eta adibide baten bidez iradokitzeko zera esan daiteke: Mende luzetan, Seguran “soldatadun langilerik” gehien zuen erakundea Eliza zela, Udalaren edo herriko beste lantegien aurretik; esaten dugun honen frogaz bezala, gogora Parrokietako Bikario, Benefiziatu eta arduradunak, Komentuko eta beste eliz Etxeetako mojak ahanzi gabe. Horrela, bada, Eliza modu erabakigarri eta eraginkor batez zegoen txertatuta Segurako gizartean, eta herritarren erlijiotasunari ez ezik herriko premia sozialei ere erantzuten zien (haurren heziketa, gaixo eta zaharren ardura, etab.).

2. SEGURAK ELIZ EGITURETAN IZAN DUEN LEKUAZ

Eliza esateak, besteak beste, erlijiotasunaren antolakuntza sozial, juri-diko eta lurraldezkoa esan nahi du: herritarren gobernu eta zerbitzurako, Kristauartearen lurraldea Diozesi eta mota ezberdinetako elizbarrutitan antolatu izan da, eta Kristauartea bera (eliz jende eta herritar kristauez ari naiz) gidatzeko eskubide eta betebeharrak barruti horietan mugatu izan dira, usadioz eta legez (Sinodo eta Kontzilioetako arauak, Kode Kanoni-koa, etab.). Horrela sortutako eliz egituretan Segurari izendatu izan zaion tokiaz esan nahi dugu, bada, zerbait.

2.1. SEGURAREN DIOZESIAK

Eliza kristauek beren antolakuntza Gotzainen eta hirietako Gotzainde-gien inguruan egin zuten, Ekialdean bezala Mendebaldean, Europan. Gu-rean ere hala gertatu zen, baina berezitasun batekin: Euskal Herriko men-dialdeetan ez zegoen halako Gotzain-hiririk, eta ia beti gaurko (ez derri-gorrez orduko) Euskal Herriko ertzetan, edo kanpoan ere, suertatu ziren euskal lurraldea menpe izango zuten Gotzaindegiak. Gogora daitezke batzuk: Kalahorra hegoaldean (1109-1862), Baiona edo Akize iparral-dean, eta laster mendiz hegoalderago lautada-ertzetan (Armentia, Araban 1087a arte); besterik da Iruñea, Nafarroan (Liliolo lehen Gotzain agirizta-tuarekin: 589)⁵. Gotzaindegien eraketa honek lurraldeari harreman-espazio bat ezarri zion, noski, eta, ondorioz, tokian tokiko biztanleak eta he-riak alde batera edo bestera begira jarri zituen.



Iruñeko Katedrala: Iruñeko Diozesis eta bertako Gotzaina izan dira kristau mende gehienetan segurarren Elizbarrutia eta Burua. Ez da, beraz, harritzekoa Iruñeko Artxiboan Segurari buruzko agiri zaharrene-tako bat egotea (1501). Azpiko Bulda hau Julio II.arena da, eta San Adriango Santis-pirituko Priorgoaz ari da (orduan Segurako Udalerriari zegoena, 1503).

ERMITEN LEHEN ALBISTE HISTORIKOAK

San Andres Ermita	XIII. mend.
San Joan Ermita (desagertua)	1412
San Bizente (desagertua)	1489
Beheko Gurutzea	-
Santa Magdalena (desagertua)	1551
San Migel (desagertua)	1561
Santa Engrazia	1563
San Sebastian	1589
Santa Barbara	a. 1625


Iruñeko Gotzaindegiaren sorreraz iritzi ezberdinak eman izan dira, beraren sortze-urteak IV. mende-bukaeratik VI. mendeko azken herena bitartean kokatzen dituztenak⁶. Gipuzkoako parterik handiena Iruñeri egotzi zitzaion, baina ez dena, diozesiarteko lurralde partiketa haietan errealitate geografiko eta etno-kulturalek ere beren pisua izaten baitzuten. Elizbarrutien banaketarako, Gipuzkoako kasuan, bi datu gainjarri ziren, Diozesiei neurri handi batean beren mugarriak ezarriz: Gipuzkoa karistiarra Kalahorrari atxikirik geratu zen bitartean (Leintz bailara, Debaldea, etab.), Gipuzkoa bardularra Iruñearen eskumenean suertatu zen, horrela giputzen euskalki-banaketa ere egoki ispilatuz (bizkaieraren mintzatzaileak, Kalahorran, eta gipuzkerarenak Iruñean)⁷. Beranduenik ere, XI. mendean Gipuzkoa gehiena Iruñeko Diozesi barrenean zegoen⁸. Goierriri dagokionean, XIX.a arte iraun zuen Goiz Erdi Aroan sortutako egoera horrek⁹.

Geroko bizialdi laburragoko gure historia diozesitarrak gogoan hartuta, Segura batez ere iruñarra izan dela esan behar dugu, Erdi Aro osoan, Aro Modernoan eta Garaikideko parte batean halakoa izan zelako, Gasteizko Diozesia sortu zen arte alegia (1862). Nafarroarekiko eliz atxikimendu honek esanahi handia du, zeren eta 1200az geroztik Gipuzkoa eta gure eskualdea Gaztelako Erret Koroaren menpe baitzeuden, eta herria sortu zenetik bertatik (1256), Nafarroako Erreinuaren aurrez aurre eta Gaztelako Koroaren eskuetan, Segurako Hiribildua mugarri gotortu bezala ageri zen, defentsarako nahiz erasorako.

Denbora luzez, Erreinu arteko muga-banaketak baino ziurki eragin handiago izan zuen Seguran, Iruñeko Diozesiak ematen zigun batasunak: Adibidez, Segurako hainbat auzi (erakundeetakoak, talde edo familieta-koak, eta pertsonalak ere) Iruñean konpondu edo erabakitzen ziren, beste hainbat Valladolideko epaitegietan bezala.

Azkenik, Hiru Probintziei beren Gotzaindegi bakarria Gasteizen eman zitzaientean, 1862an alegia, atxiki zen Gotzain-Egoitza berri horretara Segurako herria ere, Iruñeko Diozesiko beste 96 Parrokiarekin batera Diozesi berria osatuz. Euskal Diozesi gazte honek, dakigunez, loraldi eman-korra izan zuen XX. mendean (1910-1950.enetan edo), eta Segurari leku gidari bat eman zitzaion lurralde diozesitarra eratzean. Ikusiko dugu.

Donostiako Diozesiaren historia da, oraingoz, laburrena (1950...), eta bete berri du bere lehen mende-erdia. Laburra izateak, ordea, ez du esan nahi bere sakonean historia azkar eta aldakorra izan ez duenik, eta menderdi horretan herriko egitura eta bizitza erlijiosoaren itxuraldaketa alkan-



Donostiako Gotzaina: 1950az geroztik Segura Donostiako Diozesikoa da. Argazkian, Diozesi berriko lehen Gotzaina, Font i Andreu Jauna, Segurako Parrokian (1953).

tzu handikoa izan ez denik (Vatikano II.a eta bere ondorioak, eliz bizieraren birmoldaketa, kristauartearen sekularitzea, edo Oria Goieneko ardura pastoral frantziskotarrei ematea, esaterako: Diozesi donostiarra jaiotzean ere aurreikus ezin zitezkeen alda-indarrak izan dira horiek).

2. 2. SEGURA DIOZESIKO ARTZAPEZGOEN ARTEAN

Iruñeko Diozesiak Gipuzkoan bi Artzapezgo (*Arciprestazgo*) izan zituen, bata “Nagusia” (*Mayor*) deitua, Erdi Aroaz geroztik jada Iruñekoa zena, eta bestea “Txikia” (*Menor*), jatorriz Baionari zegokiona baina hari kenduta 1566an Iruñeari eman zitzaiona. Azken honek, Gipuzkoan Oiarzun eta Bidasoaldea hartzen zituen.

Artzapezgo Nagusiari zegokion Iruñeak Gipuzkoan zuen lurraldeparterik handiena, Donostialdetik Urolaldera zihoana eta Kostaldetik Zegamaraino. Segura, beraz, Artzapezgo Nagusikoa izan zen, Iruñeko Diozesiaren barruan.

Gasteizko Diozesia sortzean, Gipuzkoa lau Artzapezgotan banatu zen, epaitegi-barrutien arabera: Azpeitia, Donostia, Tolosa eta Bergara. Banaketa horretan Segura Azpeitiko barrutian zegoen. 1877an, ordea, premiazkotzat jo zen Probintziako Artzapezgoak bikoiztea, beste lau berri eraikiz, eta berri hauen arteko bat izan zen Segurakoa ere, Eibar, Arrasate eta Ordiziakoekin batera¹⁰. Hortik aurrera, Segurako Artzapeza barruti baten Buru gertatu zen, beraz.

1925eko Buletinean ikus dezakegunez, ondoko herriek osatu zuten Artzapezgo hori: Arriaran, Astigarreta, Zegama, Zerain, Ezkioga, Gabiria, Itxaso, Mutiloa, Ormaiztegi, Segura eta Urtsuaran-ek. Badirudi garai bateko oihartzun zaharrek badutela lurralde honekin zer ikusirik, eta baita Segurako gaurko frantziskotarren pastoral-barrutiak ere. Beasain eta Idiazabal Ordiziako barrutian geratu ziren¹¹.

Horrek horrela iraun zuen, harik eta Vatikano II.aren ondoko aldakuntzek parroki lanak berrantolatu zituen arte. Hortik aurrera Ordizia da Goierrin Artzapezgo Buru, Legorretatik Zegamaraino, Ormaiztegitik Ataun eta Abaltzisketaraino¹².

Eliz antolakuntza honetan ere, Segura ez da egon, beraz, isolatuta, edo Hiribildutik kanpoko herriekin loturarik gabe; aitzitik, eliz bizitza eremuz zabalago horretan gidaritzaren bat eramatea ere suertatu zaio; hala ere, horren historiak baino interes gehiago du guretzat, Seguran bertan Elizak izan duen antolakuntza ezagutzeak.

2. 3. HERRIKO ELIZGUNEAK: ERMITAK, ELIZAK, KOMENTUA

Segurako bizitza erlijioso, norberaren barruan eta herriko familietan bizi ohi zen, noski, eta Hiribilduko elizguneak ziren esperientzia erlijioso horren sostengu instituzionalak, izan ere otoitzerako leku publikoek, fedespakizunetan biltzeko erraztasunek eta elizguneetako arduradunek lagundu izan dute sozialki herritarren sinesmena, elkartzeko aukerak sortuz eta horretara deitu eta behartuz ere.

Seguran ugariak izan dira horrelako lekuak. Lehenengo eta behin herrigunearen inguruetan izan ditugun Ermitak, batzuetan Parrokia izandakoak, gainera (San Andres eta Santa Engraziko kasua da hau). Liburu honetan bertan, Agirre Sorondok 9 Ermiten zerrenda ematen digu, beren



kronologia eta guzti, eta merezi du hemen lauki batean beroriei dagozkien lehen datak ematea (agirizatuak, edo historialari klasikoengandik jasoak)¹³.

Goiko laukian jasotako data horiek ez dira, oro har, sortze-urtea zehazki ematen digutenak, eta pentsa daiteke lehen albiste horien aurrekoak direla Segurako Ermitak. Berauen sorrera Euskal Herri osoko fenomeno orokorrarekin erlazionatu behar da. Euskal Herri osoan 3.540 Ermita zenbatu izan dira, horietako % 76,3 Santuenak. Segurako Ermiten izendapenerako hautatu ziren Santuak zerrenda luze horretako lehenengoetakoak dira. Hain zuzen, San Migel eta San Joan izan ziren, Ermita gehien izan dutenak, hurrenez hurren 214 eta 211 Ermita. Seguran izan ditugun Ermita-Santetan (emakumezkotan, alegia), Sta. Magdalena da Euskal Herrian ugariena (zerrendako bosgarrena: 92 Ermita), eta geroxeago datoz, baina beti zerrendako lehenengoen artean: San Andres (10.a: 73), San Sebastian (12.a: 60), Sta. Barbara (14.a: 58), San Bizente (23.a: 34) eta Santa Engrazi (25.a: 35). Azkenik, gogora dezagun Santa Kutz, Kristori lotutako adokazioen artean lehenengoa izan dela Euskal Herrian, alde handiarekin, gainera: 152 Ermita¹⁴.

Datu horien arabera, Segurako Ermiten titulu-izendapena ez da batere originala izan; alderantziz, Euskal Herrian zabalduenak izan diren Santuen artean aurkitzen dira Segurako horiek. Hala ere, badago Seguran Euskal Herriko arau orokorretik aldentzen den datu jakingarri bat: Santuen artean, emakumezkoen izenak oso urriak dira Euskal Herrian, gizonezkoekin alderatzen baldin baditugu. Ez da hori Segurako kasua, zeren eta hemen heren bat behintzak Santak baitira Ermiten izena eman dietenak: Sta. Magdalena, Santa Engrazi eta Sta. Barbara¹⁵.

Ermita hauetako bakoitzean indarrean egon diren jaietako usadioak aztertzeak segur aski segurarren mentalitate erlijiosoa argitzen ez luke gutxi lagunduko, eta balio etnografikoaz gain historikoa ere izango luke horrek. Lana, uste dudanez, egiteko dago.

Ermitek ez dute, ordea, agortu herriko elizguneen katalogoa. Hiribil-dua indartu ahala, murrubarneetan, edo hurbil, eraikin erlijioso handiak jaso izan dira Seguran: Jasokundeko Andre Mariaren eliza, noski, baina baita Sorkundetarren Komentua ere. Bi eraikin zinez enblematikoak, biak ere. Horiei, komunitate erlijiosoen kapera txikiagoak ere gehitu behar zaizkie (Egoitzan, Aterpean).

Hauek ere beren kronologia izan dute, ez baitira Hiribilduarekin bat-batean eraiki izan, baizik eta herriko eta herritarren erlijiotasun, kultura eta ekonomiarekin zerikusi zuzena izan dute, eraikin erraldoiak izan direlako eta borondate eta ahalegin sozial handien emaitzak direlako. Labur esateko, sinesmenik eta dirurik gabeko herri batek ezingo zituen jaso, eta gure kasuan, izerdi onak botata izan arren, azkenik burutu ahal izan ziren, behintzat, lanak.

Jada 1374an, San Andresen Kofradiak bere xedeen artean izan zuen izen bereko Ermita zaintzea, behar zen dirua jarritz (...e doziesto e cinquenta maravedís para la obra de la dicha yglesia de Sant Andrés...). Era berean, mende bete eskas geroago (1466), Andre Mariaren elizarako (artean gero ezagutu dugun eliza egin gabe zegoela, noski) baina oraingoan Erromaraino joaz, Paulo II.a Aita Santuari indulgentziak eskatu zitzaiz-



kion herritarrek laguntzak errazkiago eman zituzten, eraikinak berehalako konponketak eskatzen baitzituen¹⁶.

Eraikuntza horietan ez zuten belaunaldi guztiek berdin jokatu, indarrak falta zirelako edo baliabiderik izanda ere, borondateak zeregin horretara bildu ez zirelako. Merezi du, bada, eraikin erlijiosoen une historiko nagusiak hona ekartzea:

ELIZ ERAIKUNTZEN KRONOLOGIA (XIV-XIX. MENDEAK)		
<i>Eliz eraikina</i>	<i>Datak</i>	<i>Eraikuntza albisteak</i>
Jasokundeko Andre Mariaren eliza	XIV. mend. XV. mend. 1564-1588 1580... 1686-1687 1705, 1731 1708 1732-1739 1743-1747 1750 1756 1757	Eraikin gotikoak Eliza berriko lehen eraikinak: elizburua Eliz gorputzaren eraikuntza Kanpandorra Koruaren eta gangen eraikuntza Kanpandorreko suteak Garbitokiko Arimen aldarea Kanpandorre berria Aldare Nagusia Bakardadeko erretaula Errosarioko erretaula Jasokundeko aldarea
Sortzez Garbiaren Komentua	1519-1578 1579-1638 1638 1641-1654 1686 1686-1703 1730-1733 1745-1748 1754 1788-1789 1819 1879	Sorrerako Etxea Komentu zahar handitua Herriguneko Komentuan sutea Komentu berriaren eraikuntza Iparraldetik atari nagusirako ibilgunea Komentuko elizaren eraikuntza nagusia Klausuraz kanpoko ataria Aldare Nagusiko erretaula Alboetako erretaulak Nobiziategiko gangak Falta ziren klaustroko bi hegalak Erretaula Nagusiaren urreztapena

Ikus daitekeenez, herriko bi eraikin erlijioso horiek jasotzeko ahaleginetan bi mende eta erdi ongi beteak pasa ziren (1564-1819), eta bertako herritar xume, Udaletxe eta aberatsekin batera, sortzez edo jatorriz segurrak ziren “indianoek” ere lagundu zuten. Arkitektur lanak burutzean, barneko hornikuntza eta apainketari heldu izan zitzairen. Urte-segida hori begiratzen bada, badirudi kasik belaun bakoitzak aurkitu zuela zertan lan egin, eta denei egokitu zitzaizela herriko ondare erlijiosoa aberastea.

Komentuarena aipatzearekin esanda dago Segurak, ohizko Parroki(ar)ekin batera, erlijiosoak ere izan dituela, otoitz-lekutarako ez ezik premiazko zerbitzu sozialak segurtatzeko; hau da, ermita eta elizekin batera, komentu edo erlijioso-taldeak ere. Eta guztiok beren antolakuntza instituzional eta soziala eskatu dute, bizirik iraun eta beren eginkizunak betetzeko. Hortaz, Parrokiaz eta erlijiosoen lagunartez hitz egitea dagokigu.

3. PARROKIAKO ELIZ ARDURADUNAK

Elizak, presentzia soziala eta erlijiosoa segurtatzeko, herriko bere fededun xumeak izan ditu, oinarrian; baina, ez dago zalantzarik, Eliza Erakunde den neurrian, bere barneko arduradunek (Gotzainengandik hasi eta azken sakristauaganainokoek) egituratu diotela bere izan instituzionala. Galdetzekoa da, bada, parrokia bakoitzean hori nola bideratu den, antolakuntzaren aldetik.

Gipuzkoako elizetako zerbitzuen antolaerak hiruzpalau une erabakigarri edo kezkatu izan ditu: Trento-ondoko (1563...) hamarkadetako erreformarena, XVIII.eko azken hiru hamarkadetan ezarri ziren erreformena eta 1881ean Gasteizko Diozesian egin zen benefiziatu-planarena; funtsean, gure arbasoen kleroaren bizitza molde beretsuan joan zen XVI-XIX. mendeetan. XX. mendeko azken erdian ikusi ditugun aldakuntzena gehitu beharko litzaieke haiei.

Parrokiak bere “benefizioak” izan ohi zituen, hots, eginbehar-multzo jakin bati erantzungo zion kargudunari bere “soldata” ordaintzeko ondasun eta errentak (hamarren eta hasikinetatik, eta fundazioetatik osatutakoak). Eginkizun haietarako lan-postua irabazten zuenak, benefiziatuak alegia, ondasun horietatik bizitzeko eskubidea zuen. Eliz Kabildoaren Buru zenari *Bikarioa* deitzen zitzaion Seguran eta Gipuzkoako herri askotan (beste zenbait herritan, *Parrokoa* zenari alegia). Benefiziatuetako batzuk benefizio osoa jasotzen zuten, baina bazegoen —irabazita zituzten eskubideen arabera— benefizio-erdia edo laurdena eskuratzen zuenik ere¹⁷.

Bikarioa zen Sakramentu-bizitza eta predikua segurtatu behar zituena, eta elizako pastoral-egitaraua gidatu behar zuena. Ondoan zituen benefiziatuek hainbat eginkizun zehazetan lagun ziezaioketen berari (Hileta, Meza kantatu, Prozesio eta abarretan), baina funtsezko ardura pastoralak berea zuen Bikarioak (haurren katekesia, iganderoko predikua, aitortzak, etab.).

Parrokietako oinarrizko zerbitzuen ondoan, herriaren, udalaren nahiz ongileen ekarpenen arabera, posible zen, gainera, beste eliz zeregin osagarri ordainduak izatea ere, kapilautzen eta bestelako fundazioen bidetik (ongileen aldeko Mezak, gaixoei elizakoak, herriko jai edo jaiera berezietako ospakizun hitzartua, etab.). Zerbitzu osagarri hauek Parrokiako eliz bizitza aberastu egiten zuten, alde batetik, eta, bestetik, elizgizonen



Herriko apaizak: Segurako Parrokia apaizez ongi hornitua egon da, eta behar zentan ez da falta izan inguruetakoen laguntzarik.

ogibideak segurtatzeko balio izaten zuten. Dena den, Kapilautza hauetarako izendapen eta betebeharrak fundatzaileari onartu izan zitzaizkion baldintzen barruan bete behar ziren, eta, sarritan, kapilau berrien izendapena fundatzaileari edo beronen ondorengoei zegokien; batzutan, ahal zelarik, herriko semeen artean edo fundatzailearen familiako bertakoetatik hautatzen zen Kapilau berria. Segurako Bikario eta Benefiziatuen zerrenda historiko aberats bat (J. A. Garrok prestatua) liburu honetako eranskinetan aurkituko du irakurleak.

Segurako Parrokian ez zen falta izan mota ezberdinetako Fundaziorik. Horien artean daude ondoko urteetatik aurrera beren agiriak Artxiboan utzi dizkiguten Kapilautzak: Maria Garcia de Aldaola (1586), Andres López de Mirandaola (a. 1592), Migel Arangoiti (1624), Roke Untzurrunzaga (1647), Maria García de Aldaola (1651), Pedro Beresiartu (1697), Juan Arrue (1675), Esteban Artza (1716), Diego Antonio Arrue (1738), Martin Lardizabal (1773), Pedro Urbisu (1784), Ana Antonia Iparragirre (1789) eta Jose Manuel Agirreburualde-ren Kapilautzak (1838)¹⁸.

Meza eta elizkizunetarako sortutako Kapilautzen ondoan, ordea, baizeuden Parrokian “Obra Onak” ere (*Obras Pías*, alegia). Honelakoek herriko giza beharrian larri eta tristeenei erantzun nahi izaten zieten: gaixo edo zaharrei, pobreei, etorkizun onik gabeko nexkei. Izan ere, Jaierazko Obra hauetako gehienak “para dotar a doncellas pobres” zirela esaten zaigu agirietan. Normalean, herriko handikiek sortzen zituzten honelakoak, dirua eta ondasunak jarri behar baitziren Fundazio horiei geroa segurtatzeko. Antonio Santos Oreitia (1590), Migel Arizti eta Katalina Aurgazte (1626), Roke Unzurrunzaga (1647), Martin Lardizabal (1723), Jose Manuel Agirreburualde (1833) izan ziren Obra On batzuen sortzaileak Seguran. Fundazio hauen historia Segurako ongintzaren historiako kapitulu jakingarri bat da, eta luzea izan da artxibategian utzi duen arrastoa, Unzurrunzaga edo Oreitiarenaren kasuan, adibidez, XVI. mendetik XX.era iristen baita dokumentazio-segida.

XVIII-XIX. mendeetan hasi zen aldatzen hau dena, sistema osoa premia pastoral berrietara egokitzeko asmoarekin, eta, nolahi ere, lanpostu hauen gero eta desegokitasun ekonomiko handiagoei gaina hartzeko. Hobekuntza gogo honen adibide ona da 1768tik aurrera abian jarri nahi izan zen Iruñeko Diozesiko Benefizio-Erreforma. J. L. Irigoien (1768-1778) eta L. Igual de Soria (1795-1803) Gotzainen lana erabakigarria geratu zen Diozesiko Parrokietan administrazio-egitura berria eratzeko.

Elizaren Erreforma honek eliz bizitzari oinarri arrazoizkoagoak eman nahi zizkion, eliz jendearen ekonomia bizitza errealerara egokituz (kargudun bakoitzari *congrua* edo soldata egokia emanaz), eta, aldi berean, zituen kargu-eginkizunak hobeki betearaziz. Irigoien Gotzainak sekulako lana hartu zuen Diozesi osoa herriz herri ikustatzen, Parrokietako egoera bertatik bertara ezagutzeko. Horrekin batera, bere Artzain-Gutunak eman zituen, eta Gotzain-Bisitaldiaren aurretik herrietan Misioak eman arazi. Erreforma juridiko-administratibo hutsetik harago iritsi nahi izan zuen. Egia esan, Irigoien hil eta gero ere, oro har hamarkadak behar izan ziren hobetsitako oinarri berriak ziurtatzeko.

Gure herrian berrikuntza haiek proposatu aurretik, 1771n Zarauzko frantziskotar Misiolariei eskatu zien Gotzainak, beste eskualde askotan bezala, Segura, Idiazabal, Zerain eta Mutiloan Misioaldi bat emateko, ingu-



Zeraingo eliza: Zeraingo Sortetxeak zuen eliza honen gain Zeraingo, XIX. mendea arte.

ruko hiru herriak Segurara deituz¹⁹. Benefizio-Plan honek interes historiko nabaria du, handik honakoa ezagutzeko ez ezik aurrekoen berri jakiteko.

XIX.ean klero diozesitarraren egoera ekonomikoa –alderdi politiko guztiek Estatutik konpondu behar zela esaten zutena– bere irtenbidea ezin asmatu ibili zen Estatu-Administrazioaren eskuetan. Desamortizazioak hainbat eliz ondasun eraman ondoren, eta hamarrenak kendu (1837), zintzilik edo zegoen dena. Horregatik, Gipuzkoan herri ugartan herritarrek berek mantendu zuten hamarrenak eta hasikinak Elizari ematea, eta Seguran proposamen bat landu zen (1870). Dakidanez, Seguran 1950. etako hamarkada arte behintzat, iraun zuen borondatezko jarrera horrek (On Tomas Berasategi-ren etxeko atarian bildu ohi ziren, gogoan dudanez, herriko hasikinak eta hamarrenak: gure herrian atari hura zen, beraz, euskaraz *hamarrendegia* deitu ohi zena). Apaizen arteko hamarrenen banaketan (Gipuzkoan gehienetan egiten zenaren alderantziz), Seguran Bikarioak eta gainerako apaizek berdinduta jasotzen zuten²⁰.

Liberalismoaren politika erlijiosoarekin eta Gasteizko Diozesi berriak eman zuen aukera historikoaren arrastoan, kanobismoarekin burutu ahal izan zen, urte luzetan atzeratuz (gutxienez, 1821-1862. etatik) zetorren bigarren erreforma ere (1882)²¹. Vatikanoko I.a arte iraun zuen horrek. Une horretan, Gasteizko Diozesiko Parrokietan hiru maila ezberdinetakoak zeuden: sarrerakoak (266 parrokiak), igoerakoak (69) eta helburuko (23) deiturikoak; horien ondoan baserriarteak zeuden, bigarren (246) eta lehenengo (104) mailatan banatuta. Segura eta Oria Goieneko Parrokiak honela geratu ziren sailkatuta, mailaz eta apaiz-laguntzailez (1882)²²:

ORIA GOIENENKO PARROKIEN MAILAK		
<i>Herriak/Parrokiak</i>	<i>Maila</i>	<i>Apaiz-kopurua</i>
Segura	Igoerakoa	3
Zegama	Igoerakoa	4
Zerain	Sarrerakoa	1
Mutiloa	Sarrerakoa	1
Idiazabal	Igoerakoa	3
Beasain	Igoerakoa	3

Sailkapen honek bere ondorio ekonomikoak zituen, eta Diozesiko apaizen gora-bidean eskaileraren mailak ziren horiek, erantzukizun pastoraletan eta egoera ekonomikoan gora egiteko. Bestalde, apaizen herriko kopurua Bikarioarekin osatzen zen (Segurari, hortaz, lau apaiz zegozkion, beste herrietan bezala Bikarioa gehituz). Eliz zerbitzuak ongi segurtaturik zeuden, orduan herriak zituen 1.540 bizilagunentzat (1877), are gehiago mojen Kapilaua ere aintzakotzat hartzen bada.

Zerbitzuen segurtasun horrekin batera zein zen elizgizonen eskaintzen zitzaien segurtasun ekonomikoa? Plan horren arabera, Segurako apaizen soldatak zein modutakoak ziren? Igoerako Bikarioek urteko 1.125 pezeta-ko soldata zuten, eta maila bereko apaiz laguntzaileek, osera, 750 pta. irabazten zituzten; sarrerako Bikarioei 875 pta. ematen zitzaien urteko, eta hauen laguntzaileei, berriz, 750 pta.

Datu hauekin batera, Diozesiko Buletinak bestelako xehetasun ekonomikoak ere eman zituen urte hartan (1882): Bataiokoan apaizari 2 pta.



Mutiloa: Lazkaoko Jaunek zuten eliza honen gain beren Zaingoa, XIX. mendea arte, Santa Engrazikoa Arriarango jaunen menpe zegoen bezala.



Zegama: Segurako Andre Mariaren elizan bezala, Zegamako Parrokian Udalak zuen eliza honekiko Zaingo, XIX. mendea arte.

ematen zitzaion, sakristauari 0,50 eta elizari kandela bat; ama berrien “elizan sartzeagatik” 1,5 pta. ordaintzen zen (apaizari pezeta bat, eta sakristauari 50 xentimo); ezkontzak garestiagoak ziren: 3 pta. apaizari eta 1,50 sakristauari, etab.

Ekonomi molde hau bizi-iraunez segitzeko modukoa zen Seguran, eta Meza abestu, Urteurreneko edo Kapilau-lanekin itxuratzen zen zerbait hori. Hala ere, bazegoen luxuzko sarrera posiblerik ere: hiletak Lehenengo, Bigarren eta Hirugarren klasekoak izan zitezkeen; Hirugarren klasekoa nahiko merkea zen (6,75 pta.), baina hortik gora ibili nahi zuenari (eta nork ez du nahi hildako maitea ohoratu?), dezente gehiago kobratzen zitzaion: Bigarren mailako hileta 28,50 pta., eta Lehenengo mailakoa 87,50 pta. Vatikanoko II.aren ondoren berdindu dira diferentzia sozial eta erlijioso hauek.

Hori zen, beraz, eliz arduradunen lagunartea eta beronen sostengu ekonomikoa, herriaren borondate behartu edo libretik zegoena (hamarrenak bezala Meza eskatuak, adibidez), inoiz Udalaren laguntza ere jaso ohi zuena (Udalak berak eratu eta lagundu nahi zituen ospakizunetan), eta Aro Garaikidean Benefizio-Plan (*Plan Beneficial*, 1882) batetik bizi izan zena (halakorik Madrilen onartu zenean: 1881).

Hori da Parroki(et)ako mundua, orain arte aurkeztu nahi izan duguna, baina horrekin batera aintzakotzat hartzekoa da erlijiosoena ere, honelakorik aspaldidanik izan baita Seguran.

4. ERLIJIOSOAK SEGURAN

Gutxienez XVI. mendeko lehen hamarkadetatik hona izan dute erlijiosoek Etxeren bat herrian; lehenengo, moja frantziskotar elisabetarrak izan ziren, eta gero, horiekin batera eta XIX. mendeaz geroztik, Karitateko Alabak. Tartean badirudi, gainera, Mujardin eta Ermasoro base-rietan egon zirela aldi batez mojaren batzuk Frantziatik ihesi etorriak (Iraultzatik ihesi?). XX. mendeak ere ekarri zuen berritasunik erlijiosoen honetan: alde batetik, berrogeiren bat urtez Karitateko Alabak Aterpe-Etxean jarri ziren, bigarren Ahizpartea osatuz, eta bestetik, lekaide viator- tarren Komunitatea ez da ahantzi behar, nahiz eta hogeiren bat urte eska- seko egonaldia bete zuen, ez gehiago. Hauei guztiei buruz esan beharko dugu, beraz, zerbait²³.

Honek ez du garrantzia herrirako bakarrik. Izan ere, erlijiosoen bizit- zak bere baitan daraman lekukotasun ebanjeliotarrerako eta eskain ditzakeen zerbitzuetarako, ia Seguran bakarrik errotu izan dira Ori Goie- neko erlijioso-erakundeak. Eskualdetasun-aldea ere badute, hortaz, erliji- osoen etxe hauek.

4. 1. KOMENTUKO MOJAK: SORKUNDETARRAK

Segura-Segurako mojak “Komentukoak” izan dira beti herrian, eta sen- tiera edo esan-modu horrek bere arrazoi historikoak ere baditu, berehala esango dugunez. Komentu honen historia oso eta orokorra egiteke baldin badago ere, baditugu baliozko ikaslanak ere (Lardizabal/Mendizabal, Uri- be, Astiazarain), eta berauetaz baliatuko gara laburpen historiko hone- tan²⁴.

Segurako Komentu hau Euskal Herriko moja frantziskotarren artean lekutu behar da; hauetako gutxi batzuk (Oñatiko Bidaurreta, Tolosa edo Azkoitiko klaratarrak, adibidez) hasieratik bertatik fundatzaile baten borondatez eta diruz sortutakoak ziren; baina askoz ugariago dira, horrelako fundatzaile sonatu edo eskuzabalik gabe, herriko zenbait lagunen ahaleginez eta lehendik herrian zegoen serora-talderen batetik sortutako Moja-Komentuak.

4.1.1. HERRIKO ETA ELIZAKO ZERBITZARI

Hau esanda, garbi dago Segurako Sortzez Garbiaren Ahizparte herriko gizartearen emaitza dela, gero —eliz Erakundea denez— nortasun juridiko jakin bat eman zitzaiona, kasu honetan frantziskotarren arteko Familia erlijiosora bilduz. Hori azpimarratuz, zera dio Uribek²⁵:

Una vez más también en la villa de Segura hubo a principios del siglo XVI un grupo piadoso de mujeres, “señoras, hijas y vecinas” de la localidad, que acordaron juntarse a vivir en una casa o beaterio situado dentro de los muros de la villa y consagrado a San Antonio Abad, para dedicarse prioritariamente al servicio de Dios y de la iglesia parroquial.

Historialariaren sarrera-ohar honek xehetasun jakingarriak ematen dizkigu, Ahizparte erlijioso honen sorrera-uneak argitzeko:

1. Herriko emakumeak dira elkartzeko ekimena hartu zutenak.
2. Horretarako, etxe bat erosi zuten beren kontura, serora-etxea (datu hau pasarte horren ondoren ematen du Uribek).
3. Batez ere Parrokiaren zerbitzuan jarduteko bildu ziren.
4. Ez zuten, artean, Erregela finkaturik, baina bazuten Santu zaindari bat (San Antonio Abadea).

Pentsa daiteke, emakumeok herriari eskaini ziezazkioketen zerbitzuak gogoan izanik, Parrokia ez ezik Udala ere interesatuta egon zitekeela seroategi honen sortzean. Hasteko, formaltasun juridiko handirik gabea zen taldea (klausurarik gabea, noski, baina Erregela ongi zehazturik gabea ere bai, nahiz eta San Agustinen Erregelaren iradokizunpean bizi zen). Historia hau dena, XV.aren bukaerakoa da edo XVI. aren hasieratakoa.

1519an daukagu lehenengo data finkoa, Iruñeko Eliz Artxiboan agiritatua (Komentuko lehenagoko paperak, eta berau ere, 1638ko Komentuko sutean erre baitziren). Leon X.a Aita Santuak emandako *Cum alias* agiriaren bidez eman zitzaion nortasun arautu eta kanonikoa serora-taldeari, San Frantziskoren Hirugarren Ordenako edo Penitentziako Erregela emanez eta zinezko Ahizparte erlijioso bihurtuz. 1519ko urriaren 20an egin zen hau dena. Ordutik 1933a arte Ahizparte hau elisabetar frantziskotarra izan zen, honelako Ahizparteetan sarritan gertatu ohi zenaren arabera.

Aita Santuak emandako ezagumendu horren bidez eta serora haien Erregela-onarpenaren ondorioz, herriak eliz legez segurtaturik izan zuen zenbait zerbitzu, nahiz eta xeheki ez dakigun zer-nolako jarduera zehatzak bete izan zituen ondoko hamarkadetan Ahizparte hark. Dena den, beste honelako seroategi arautuen bidea egin zuten inondik ere, Euskal Herriko herri askotan bezala. Ez da ahantzi behar, gainera, XVI.aren lehen erdian

MOJAK: ZEIN ORDENATAKOAK?
Klausurako mojen Komentu edo Monasterioak guztiz beregainak izan dira, eta fraide Nagusien edo Gotzainen ikuskaritza ezagutu dute bakarrik. Bestalde, zein Ordenatakoak izan ere mojek berek erabaki izan dute. Segurako mojak, XVI. mendetik bertatik beti frantziskotar izan arren, bi Ordena ezberdinetakoak izan dira: 1933a aurretik elisabetarrak ziren, eta harez gero, berriz, sorkundetarrak ditugu.

gaudela, eta Trentoko erabakiek ez dituztela erlijiosa hauek artean klausurara behartu, eta herriko harreman eta eskatutako zerbitzuetan saiatu ohi zirela: gaixoak eta zaharrak zaintzen, eta eskola-eginkizunetan eta dotrina ematen ere.

4.1.2. FRANTZISKOTARRAK: MOJEN KOMENTUA, FRAIDEEN KAPILAUTZA

1519an sortutako talde-izaera berriarekin, ordea, jarduera-aldaketaren bat ere sumatzen da: Parrokiako eliz lanetarako sortutako taldea, horrela Ordena Frantziskotarraren ardurapean egokitu zenetik, biziera beregaina egiten hasi zen, bere ekimen propioekin eta Ordenaren babesaz baliatuz.

Fraide frantziskotarrak 1220 ingurutik zeuden Euskal Herrian, baina Gipuzkoan ez ziren sartu fraideak XVI. mende-hasiera arte (Arantzazu, *a.* 1501); elisabetarren Komentuak ere urte bertsuetan sortu ziren: Azpeitia, 1497; Oñati-Santa Ana, 1509; Arrasate, 1511; Bergara, 1513. Ordenaren politika orokor bati erantzuten zion, noski, fundazioen-errenka honek, eta Segurakoa kate-begi berri bat zen (gogora aipatutako gehienok Arantzazurekin zuten hurbiltasuna).

Babes instituzional garbia zuen, hortaz, Segurako garai bateko seroraldeak, Familia bereko gainerako Komentuen olatualdi berean gora egin ahal izateko. 1519ko erabakien ondorioz, fraideen Ministro Probintziaren menpe jarritz serorak lekaime bilakatu ziren, Parrokiatik bereizita eta Arantzazuko (Kantabria) Probintziaren parte. Horregatik, Probintzialak arduratu behar zuen mojei zerbitzu erlijiosoak segurtatzen: aitor-entzuleak, meza-emaileak, eta zerbitzu oro.

Erakundeztapen formal eta bikoitz honen ondoren (mojen Komentu eta fraideen Kapilautza), Segurako mojak nortasun juridiko eta sozial osoa dute; libre dira oso, eta seguru, herriko Kontzejuaren Zaingo edo bestelako edozein Zaingorik gabe. Askatasun erlatibo honek (betiere fraideen Probintzia dago atzetik) bi alde ditu: herrian ez daude Udalaren menpe (Parrokia dagoen bezala) eta erabakiak beren gisara har ditzakete, eta, nork daki, agian baita Udalaren edo Udaleko aginte-taldearen interesen kontra ere (Parrokia barne). Egoera hau finkatuta geratu zen XVI. mendean, eta hurrengo mendeko tirabira eta auziek hemen izango dute beren funtsezko arrazoia.

Hori dena ongi lotua zegoelako, balizko Zaingo baten proposamenak ez zuen indarririk izan Komentuarentzat, frantziskotarrak han zeudelarik eta, ikusiko dugunez, aurrera egiteko ongileak etxe-barruan aurkitu ondoren. Ahizpartearen burujabetasun hori, ordea, susmagarria gerta zitekeen, izan ere zeren zerbitzuan erabiliko zuten berori fraideek: Parrokiaren eskubideei lurra jateko, adibidez²⁶. Alde bat zuen horrek ona, arrisku handirik ere ez zegoela Ahaide Nagusiren batek bere Zaingopean har zezan, hori izan baitzitekeen herriko Udalarentzat kontuz begiratzeko zerbitzu²⁷.

Moja hauek libreak zirela esan dugu. Zenbateraino, ordea, libre? XVI. mendearen bigarren partea ez zen, hain zuzen, askatasunen garaia izan, Trento-ondoko Erreformak beso luzea baitzuen, bizitza oro arautu eta moldatzeko. XVI.eko azken urteetan –Euskal Herriko beste moja-komentuetan bezala– arazo berri batekin egin zuten estropezu Segurako moja elisabetar hauek. 1560.etatik aurrerako legeak gogorak gertatu ziren Elizan: agintzen zenez, klausura guztiz itxira bildu beharra zeukaten lekaime

MOJA FRANTZISKOTARRAK
Klausurako moja
frantziskotarren artean klaratar,
sorkundetar eta elisabetarrak
egon dira Euskal Herrian.
Orain, dagoeneko, ez dago
elisabetarrik, denak klaratar
edo sorkundetar egin direlako.
Klaratarrak dira ugariena
orain: 25 Komentu Euskal
Hegoaldean.

denek. Klausura hori ezarri nahi zien eliz Hierarkiak, eta frantziskotarrek ere²⁹.

Hau da, zalantzarik gabe, Eliza Katolikoan emakume eliztar elkartu eta botodunek jasan behar izan zuten unerik gogorrenetakoa. Horregatik, asmo horren kontrako jarrerak sarritan agertu ziren Monasterio eta Komentuetan ez ezik gizarte zibilean ere, klausura hertsu hark herritarren interesak ere ukitzen zituelako. Aurkakoen arrazoiak beti bertsuak ziren: bizitzeko, kanpoko esku-lanaren premia; herrian, eskaini ohi zituzten beharrezko zerbitzuei eutsi beharra; nolahi ere, mojek betidanik herriko jende eta beren familiekin zituzten harreman irekiak. Segurako kasuan ere, esku-lanaren beharra aipatzen da, urik eza, klausura barneko barazerik eza. Hala ere, 1596-1598.etan onartu egin zuten Segurako mojek ezarri nahi zitzairen klausura, Koruko otoitz-betebehar guztiak ere onartuz 1608an berretsi zutena³⁰. Horrela aldatu zitzairen, zinez, beren biziera gaurko Komentuko mojei.

Dena bide arruntetik arautasun osoan zihoala, Parrokia ondoan zegoen Moja-Etxea ezbehar batek hondatu zuen³¹: 1638ko irailaren 2ko iluntzean sute handi batek kiskali zuen parte on bat, eta salbatu ahal izan zuten bazterrera eta etxe alokatu batera bildu behar izan zuten Ahizpek (Kapilauarentzat ere hartu zen beste bat)³².


Ezbeharra tarteko, sute-aurreko egoera eskasari ere buelta eman nahi izan zitzaion orduan, herri barruko betiko orube-erakin haiek ez baituzten itxurazko Komentu bat eraikitzeke modu onik eskaintzen. Hortaz, aho batez hartu zen erabakia: herritik at baina hurbil bilatuko zela orube egokia, fraide Nagusien, Hiribilduaren eta Mojen oniritziarekin³³. Honela heldu zen komentu berriko eraikuntzari ekiteko ordua, ez noski dena —osorik, gaur ezagutzen dugun dena— jarraian eta berehala egiteko, baina bai hori pausoz pauso abiarazteko behintzat.

4.1.3. KOMENTU BERRIA?

Komentu berriko lehen eraikuntza-aldi handia 1641-1654.etan burutu zen, artean Komentuko gaurko eliza bera egin gabe, baina elizatxo bat, etxebizitzatarokoa eta baratze-mutur bat bederen segurtatuz³⁴.

Finantzaketa Mariana Zeraingoren eta Maria Gartzia Aldaolakoren kontura joan zen batik bat (Maria Gartzia bere partean 254.100 erreal eraldi zituen). Bi ongileok, alargundu ondoren sartu ziren Komentura, eta hil aurretik moja egin³⁵. Hauek izan ziren, ba, Komentu honetako ongile segurar handiak, honelakoen tradizioari hasiera emanez.

Eraikuntzak tarteko zirela, goian aipatu ditugun errezeloak agertu ziren, dirudienez ongi ospinduta, gainera. Eraikin berriek herriko orube eta eskubideei ez ote zieten kalte egingo izan zen galdera; hala ere, orain artean ezagutu ahal izan ditugun agirietan ez dirudi hori zenik zinezko arrazoiak³⁶, besterik baizik. Astiazarain-ek bere liburuan zehar erakutsi dizkigun datuen arabera, ondoko puntu hauek dira egiaz Kontzejuaren eta herritar batzuen jarrera argitzen dutenak: a) Beste ezeren aurretik, Parrokiaren eliz eskubideak segurtatu nahi ziren, ahal baldin bazen orokorki Zuzenbide Kanonikoak Komentuei ezagutzen zizkien eskubide batzuk ere eraiki berriari moztuz³⁷; b) Eskubideen defentsaren azpian, espreski agertu zen arazo ekonomikoa ere³⁸; c) Mojek sortuko zuten elizgune ongi hornitu eta zainduari lain beldur zieten Parrokiako benefiziatuek, Komentuan



Kantabriako edo Arantzazuko Probintzia: Frantziskotarren erlijioso-barruti hau izan da Segurako sorkundetarrena ere, XIX. mendeko Esklaustrazioa arte.

jarrita zeuden eta baliabide berriekin lan egin ahal izango zuten fraideei³⁹; d) 1641ean bezala 1687an Kontzejuak bortizki eragotzi nahi izan zituen obren hori herriko benefiziatuen arazoa izan zen batez ere, uste dugunez, eta oso bigarren mailan Parrokiako Zaingoa zeraman Kontzejuarena.

Kontzejuaren eta Komentuaren arteko auziok ez dira harritzeko, zeren eta garai haietan arestian esan ditugun arrazoiengatik arruntak baitziren eta frantziskotarren orduko indarra ez baitzen batere mespretxatzekoa. Dena den, auzia eta alde guztietako interesak azkenean onez bideratuta geratu ziren 1678ko Akordioaren bidez: epaitegietan aitorturik zituzten eraikuntzarako jabetasun-eskubideak ukatu gabe, mojek Parroki ondoan zuten baratzea eta putzua eman zizkieten Udalari, eta hor bukatu zen gatazka⁴⁰. Guztien onerako, noski.

Horri esker, hurrengo urratsa elizaren eta dorrearen eraikuntzari heltzea izan zen, klaustroaren parte bat ere eraikiz, XVII.aren mendebukieran (1687-1703)⁴¹; era berean, ordukoa da Nobiziategi berria, nafar-bidean geratzen dena, nahiz eta beronen barruko moldaketa 1789a arte egin gabe geratu zen. Bigarren ekitaldi honetako lanak Maria Beatriz Arrue-ren ondareak ordaindu zituen. Maria Beatriz hau (1670-1726)⁴² Arrue seguraren baten Quito-n jaiotako alaba zen, ama hil eta umezurtz gertatzean aitak Segurako Komentura izeba batengana hamar urterekin ekarria; 1686an egin zen moja Komentu honetan, aita ere hil eta berarengandik Ameriketako 20.000 pisuko herentzia jasotzekotan⁴³.

Herriarekin egindako Akordioa baino konponbide zailagokoa gertatu zen eskueran omen zegoen herentziarena, beronen Ameriketako korrituak ez baitziren nonbait kobrantza errazekoak. Arazo honetan Nikolas Onramuño osabak egin zituen ahalegin guztiak eta bost ondasunak ahal izan zen neurrian segurtatzeko⁴⁴. Eraikuntza-lanik handienak 1703an buruturik ageri badira ere, Sor Maria Beatriz hil zenean, 1726an, artean obra guztiei akabua eman gabe zegoen⁴⁵.

Ondorengo hamarkadetan, XVIII. mendeari dagokio eliza-barnea janzteia, Aldare Nagusia eta gainerako alboetakoak jarritz. Erretaulen hau 1745-1755.etan egin zen, bertako bi Abadesek bildutako baliabideei esker: Lardizabaldarrak ziren biak (Sor Maria Antonia eta Sor Ana Maria) eta 1730-1751 izan ziren bertako Nagusi, beren familiarteko Lardizabaldarrak ongile laguntzaile zituztela.

Honela, ba, XVIII. mendea amaitu aurretik, Sorkundetarren Komentua bere egitura eta zerbitzu nagusietan eginda dago, hain zuzen estualdi larriak agertzeko bezperetan bertan. Ikusiko dugu hau gero.

XIX. mendean ere hainbat hobekuntza egin zen: falta ziren bi hegaltan, klaustroak osatu ziren (1819); 1879-1881.etan, E. J. Izagirre Buenos Aiores-en bizi zen apaiz segurarrak emandako 38.000 erreali esker erre-taula nagusia urrezatu ahal izan zen; 1887an, beheko klaustroko arkupeak beiritez itxi ziren (3.836 pta.); 1890ean, berriz, eliza bera zaharberritu zen, margotuz eta papereztatuz (10.081 pta.), eta 1893an Komentu-barruko bizilekuen hobekuntzei heldu zitzaizen, obretan 11.277 pezeta eralgiz. Ahizparteak obra hauek nola finantzatu ohi zituen adierazita utzi du Sor Maria Sta. Isabelenak: partez, Komentuak zituen kapitaletatik (mojagaien doteak, batik bat), eta ia beti limosna, testamentu eta uanean uneko laguntza bereziekin⁴⁶.



Bukatu berri den mendean ere saiatu da Ahizpartea eraikina bere onean gordetzen, eta azpimarratzekoak dira teilatu eta estalkietako zaharberrikuntzak, Aldundiaren laguntzarekin, eta Ahizpartearen aurrezkiekin burutuak (1990)⁴⁷.

4.1.4. AHIZPARTEAREN BIZITZA

Ahizpartea sortzean lau seroren izenak ageri zaizkigu, 1519an: Maria Sz. Arezma, Katalin Irurritegi, Antsa Zubismendi eta Katalin Agizabala. Ondoko hamarkadetan iturriek gutxi laguntzen digute komunitatean zenbat lagun ziren jakiteko; XVI.aren azkenetan zazpi eta hamar firmako agiriak ditugu.

XVII. mendean Erromara bidalitako berriemateetan Segurako honetan 30 lekaima bizi zirela esan zen (1646), eta kontu egin behar da obratan ari zirela artean, eta uste daitekeenez, berehala gehiagotarako ere izan zitekeela etxea, doteek eta beste baliabide ekonomikoek lagunduz gero. 1680ko txosten batek 31 moja zeudela esaten du. 1686 eta 1688an hurrenez hurren belo beltzeko 22 eta 23 Ahizpa ageri dira⁴⁸. 1700ean, Komentuetako pertsonala mugatu behar izan zenean, frantziskotarren Probintziak Segurako mojen honi 23 laguneko kopurua izendatu zion⁴⁹.

Klausurak eta Trento-ondoko pentsamolde nagusiak aldakuntza serioak ezarri zizkieten erlijiosei: komentu-barruko biziera isolatua, eguneroko ordutegi zehatza, otoitz-ordu gehiago, Breviarioaren errezoa, eguneroko Liturgia (Meza eta Sakramentuak) eta gutxienez maila baterainoko eskolatzeari, otoitz ofiziala latinez egin ahal izateko. Bestalde, beren zerbitzurako fraide Kapilau bat izatean irabazle suertatu ziren, eta frantziskotarren Probintziari hertsiki atxikirik ageri zaizkigu Segurako sorkundetar hauek. Esan dugu arestian.

Santutasun-sona izandako lekaimarik ere bizi izan da Komentuan; batez ere Ana Bautista Urbizu segurarra aipatu dute historialariek (1591-1675). Hogeita lau urtez izan zen Komentuko Abadesa. Aita del Hoyo Probintzia erlijiosoko kronikariak eman zuen ofizialki beronen berri 1680ko bere txostenean, eta Aita Lizarralde ere gogoan du Sor Ana Bautista Arantzazuko Historian. Sor Ana Bautista-rekiko estimuaren oroi-garria da Komentuan duen koadro bat⁵⁰.

Garai berriekin Komentu honi ere egokitu zitzaion sasoian sasoiko aldartei aurre egin beharra, Konbentzioko Gerratik hasi (1792-1795) eta azken karlistada amaitu arte (1875). Sor Maria Sta. Isabel Lardizabal moja kronikariak baditu lehenengo une larri haren oihartzunak bere orrialdeetan: Segurako mojek garai hartu zuten erbesterako bidea, Frantziako iraultzaileak noiznahi hel zitezkeela jakitean. Hamabost erlijiosa ziren 1794ko abuztuaren 9an Nafarroa alderako atera zirenak, Kaskantera hilaren 16an iristeko (Erromeroko Andre Mariaren Santutegiaren inguruan jarri ziren bizitzen). Irteera hura nolakoa izan zen ikus dadin jasoko dugu kronikariaren testu bitxi hau⁵¹:

La conducción de los muebles y equipo de la Comunidad a la ida costó 5.853 rs. Aquí está incluido el poco gasto que hubo en la manutención, pues fueron hospedadas de limosna, como también fue de limosna la conducción de dos cerdos vivos, pero la conducción del cerdo pequeño se pagó 104 1/2 rs. y no están incluidos en los 5.853.



Sorkundetarren eliza: 1686-1703.etan eraiki zen eliza hau, eta 1745-1748.etan jarri zen Aldare Nagusia.

KOMENTUKO UNE LARRIAK

Klausura gorabehera, Komentuak ez dira mundutik eta gizartetik kanpo geratzen: kanpoko aldarreak badute haien barruan oihartzunik. Segurako Komentu honetan, esaterako, izan dira une larriak:

1794an Konbentzioko Gerrak behartuta Nafarroara alde egin behar izan zuten mojek.

1839an Gobernuaren asmoei aurre egin behar izan zieten, beren ondasunak defendatzeko.

1869an, Komentua itxi araziko ote zitzaien beldurrez, Eskola jarri behar izan zuten.

1872an karlista eta liberalen arteko gudu-erdian aurkitu zen Etxea, baina sano atera, zorionez.

1795eko Urriaren 18-24etan itzuli ziren Segurara; bien bitartean, eman zitzaizkien laguntzei esker bizi ahal izan zuten Kaskanten, eta, Sor Maria Sta. Isabelenak esaten digunez, hango eliz arduradun eta herriarekiko eskerronez beteta itzuli ziren (badakigu 18.131 erreal jaso zituztela limosna-dirutan)⁵². Lehenengo Gerrate Karlistakoan (1833-1839), Segura –Gipuzkoa gehiena bezala– Gobernu liberalaren eskumenetik at geratu zen. Segurako Komentu hau zinez segurua zen, mojentzat ez ezik ihesi etor zitezkeen fraideentzat ere⁵³.

1828az geroztik Segurako Aita Bikario-Kapilaua Frantzisko Etxagibel zen, eta, itxuraz, bazen norbait fraide hau Probintzia frantziskotarrean, 1838an Probintziako Buru izendatu baitzuten. Ondoko hilabeteetan Segura bilakatu zen Aita Ministro Probintzial honen egoitza⁵⁴.

Gerra karlista amaitzean, etorkizuna oso iluna ageri zen fraideentzat, hauen Komentuak ixteko legeak emanda baitzeuden Espainian. Etxagibel egoera berri baten aurrean aurkitu zen, beraz, fraideak isilpean eta legearen kontra gidatu beharrean, legez jada fraideak ez zirenek fraidetzan jarrai zezaten. Gerra bukatzeaz zegoela, muga pasatu eta Donibane-Lohizunen jarri zen bizitzen, baina Gipuzkoako Batzarrei bere proposamenak ezagutarazteko aukera ez zuen galdu nahi izan (1839ko abenduan), izan ere, artean, esklaustrazio-legeak bete arazi gabe Komentuak salbatzeko itxaropenen bat bazegoen, Madrileko egoera politikoa ikusita⁵⁵.

Gauzak okerragora egin zutenean, Etxagibel klandestinitatera pasatu zen erabat, erabaki bitxi bat harturik: Probintzial-agintea Herrialdeetako bere ordezkarien esku utzi, eta Frantziara erbesteratzen zela adierazi zuen ofizialki, Seguratik bidali zituen gutunen bidez. Egia, ordea, ez zen hori: Etxagibel Seguran ezkutaturik geratu zen, segur aski Komentu barruko zokoren batean, eta bere ezkututik jakin ahal izan zuen 1840ko Urte Zahar egunean itxi zela frantziskotarren azken Komentu irekia (Arrasate). Seguran bertan hil zen, 1842ko urtarrilaren 25ean; mojek isilpean egin zizkieten hiletak eta eman zioten lurra. Horrela bukatu zen Segurako ixtorio bitxi hau⁵⁶.

Hilabete larri haietan fraideak ez ezik moja sorkundetarrak ere ez ziren gelditi egon. Herriko Alkatea, goitik zetorkion agindua bete nahirik, Komentuko ondasunen inbentarioa egiteko bertara agertu zenean, berehala eman zion erantzuna gure Abadesak; historialarien artean ezaguna da, gainera, nolako agiri zorrotzarekin aurre egin zion Alkateari, Kontzilioak eta beren eskubideak aipatuz (1839ko urrian). Euskal Herriko mojen erresistentziaren adibide adierazgarri bezala geratu da Segurako Abadesaren hau: ez zeuden prest emango omen zitzaizkien balizko pentsioen izenean beren ondasun ziurrak galtzeko⁵⁷. Komentuak ahal izan zuenari utsiz jarraitu zuen.

Eta Seguran ezagunegia ez den gertakari bat gogorarazi nahi dugu orain. 1840tik 1868raino, bere txarrean ere (jada fraide-komenturik ez zegoen), bake urte normalak izan ziren, gerrarik gabeak behintzat; baina 1868ko Iraultza Loriatsua lehertzean, politika berri baten aurrean aurkitu ziren mojen komentuak ere: zerbitzu sozialen bat eskaintzen ez zuten Etxeak itxi egin zitzaizkien Gobernuak; hori zen behintzat esaten zena. Zer egin, beraz? Segurako Komentuan eskola bat ireki zen 1869an, 1876raino bere lanean jarraitu zuena; maistra-lana bizpahiru mojen ardurapean egon zen, eta badirudi nahikoa nexka-talde egokia bildu zela eskola berri horretara. Horrela salbatu ziren “Seiurteko Iraultzaileko” arrisku handienak⁵⁸.

Bigarren Karlistadakoan lehenengoan baino larriago jarri ziren gauzak, ordea, une batean Komentua soldatu liberalek hartu baitzuten, Santa Barbaran zeuden karlistei erasotzeko; hala ere, estualdia ez zen pasa okerragora⁵³. Gerra horri amaiera jarri zitzaionean (1875) eta Euskal Hegoaldea izan-modu egonkor batera iragaten zen bitartean, Komentuak bere bide berrituak segurtatu ahal izan zituen, ez alde ekonomikoan eta eraikinetan bakarrik, baizik eta Izanberrikuntzako haize berriek eskatzen zituztenetara ere egokituz. Hori gertatu zen, 1933ko Maiatzaren 31n, elisabetar izatetik sorkundetar izatera pasa zirenean, hau da, frantziskotar Hirugarren Ordena Erregularretik Bigarrenera pasa zirenean⁵⁹.

XX. mendean, Ahizparteak poliki eutsi izan dio bere lagun-kopuruari: nire artxiboan dut sorkundetarrek berek eskuratu didaten Ahizpa guztien zerrenda⁶⁰, eta ondoko datuok ageri dira bertan. XIX.etik zetozen 5 lagun ageri zaizkit, eta XX.eko 55. Hauek izan dira Komentu honetan azken mendea bete dutenak. Kopuru hau hartzen badugu, 51 izan dira gipuzkoarrak, Bizkai eta Nafarroatik launa lagun izan dira Komentu honetakoak, eta Uruguay-tik etorritako euskal alaba bat dago. Araba hurbiletik ez da bat bera ere ageri.

Eta zein herritakoak izan dira XX. mendeko erlijiosa hauek? Segurarrak izan dira 8, oñatiarrak 5, Beasaingoak 4, Idiazabal, Tolosa eta Albizturkoak hiruna, gainerako herriek bina edo bana izan dute. Nafarroako herriak Uztegi, Irañeta, Etxarri-Aranatz eta Larrasoña dira, Bizkaikoak Zornotza, Iurreta eta Forua diren bitartean.

Jakingarria da, gainera, zein hamarkadakoak diren mojarako hemen egindako profesak, mendean zehar ez baitira beti erritmo berarekin etorri. Esan dugu zerrendako 5 lagun XIX.ekoak zirela; gainerako lagunak honela banatzen dira:

URTEAK	PROFESAK
1900-1919	15
1920-1939	14
1940-1959	26
1959...	0

Ikus daitekeenez, lehenengo berrogei urteetan (1900-1939), Ahizparteko lekaime-kopuruari eusteko moduko erritmoa dute bokazioek, eta komunitatean hogeiren bat laguneko kopurua mantentzeko lain bada hori. Hurrengo hogeitun urteetan (1940-1959) erreproduzio-abiada guztiz aldatu da, nabarmenki gora eginez, eta aurreko urteetako kasik bikoiztuz (26 profesak). Ematen zuen, bada, etorkizuna handikiro segurtaturik zegoela; hala ere, gauzak gero eta gehiago murriztuz joan dira, eta juxtu kontrakoa gertatu da. 1959az geroztik Sortzez Garbiaren Komentu honetan ez da izan profesak berririk⁶¹.

Mendeko erritmo desberdin honek ez dakar inolako ezustekorik; alde-rantziz, gainerako Komentu eta Kongregazioetan gertatu denarekin oso bat datorrela uste dut eta, hori horrela izanik, ez zitekeen bestelakorik espero. Gerrateondoko goraldia ezaguna da, ez Ordena erlijiosoetan bakarrik, baita Diozesi eta Seminarioetan ere. Seguran bertan, neska eta muti-

SORKUNDETARRAK EUSKAL HERRIAN	
Sorkundetarrak bederatzi Komentu dituzte gaur egun Euskal Herrian. Guztien zerrenda ematen dugu hemen, sortze-urtea ere adieraziz:	
Azpeitia	1497
Arrasate	1511
Segura	1519
Bilbo	1526
Eibar	1634
Urantzia	1634
Tafalla	1669
Lizarra	1731
Donostia	1866
Segurako kasuan bezala, Komentu denak ez dira hasieratik bertatik sorkundetarrak izan.	

letan, garai horretakoak dira bokazio ugarienak. Benetako ezustekoa, ordea, 1960.etatik honakoa da (generalean, 1968tik aurrera nabarmendu zena): bokazioen fenomeno sozial eta erlijioso desagertu egiten da kasik bat-batean. Segurako Komentua historia orokor horren barruan dago.

Hori ikusita, badirudi Ahizparte honen etorkizuna testuinguru zabalago baten barruan begiratu beharko dela: Sorkundetarren (edo zabalago, moja frantziskotarren) etorkizunarekin lotuta eta klausuraren malgutasun eta biziera berri bati atxikia. Euskal Herrian 34 Komentu dira klausurako moja frantziskotarrenak, eta ia zortzi mendeko historia aberatsa du Familia erlijioso horrek.

Ahizparte honetako gobernuak Abadesaren eskumenean egon da, Esklaustrazio aurretik frantziskotarren Aita Probintzialaren menpe zegoela, eta gero Gotzainaren agintepean, baina beti Etxeko Ahizpek aukeratutakoa izan da Abadesa, lekaimeen eskubide demokratiko hau ez baita sekula baztertu. Aro Garaikidean (1801-2001) hemazortzi Abadesa ezberdin eza-gutu ditu Komentu honek; horietako lauk gobernaldi bakarra izan dute (hirurtekoa), eta gainerakoak birritan edo gehiagotan aukeratuak izan dira. Bi iritsi dira, behin eta berriz hautaturik, 24 urtetan Nagusi izatera (bat, Paskuala R. Segura Andre Mari Erromerokoarena, eta bestea, M. Asunción/M^a Elena Auzmendi), lehenengoa XIX.eko garai zailetan eta bigarrena, gaur egun Abadesa den segurarra. Azkenik, esan dezagun, 18 Abadesetatik 7 behintzat segurarrak izan direla XIX-XX. mendeetan (J. J. Arrue, F. Zurbano, F. X. Üzelai, Balentina/Klara Artzelus, Antonia/Isabel Lezeta, Axun/Maria Elena Auzmendi, Julene Etxeberria). Izenek ere, hein batean, erakusten digute Komentua Segurako gizartean nola txertatu izan den.

4.2. MUJARDIN ETA ERMASOROKO MOJAK

Zenbait segurarren oroimenean badago oraindik Mujardin eta Ermasoro⁶² baserrietan egon omen ziren lekaime-ahizparte banaren oroitzapena. Xehetasun bakar bat jaso dut orain artean: Mujardin izen hori *Mon Jardin* frantsesetik datorrela (“Nire Lorategia” alegia) eta Ermasoro, berriz, “*Hermana + soro*”-tik datorkigula. Nolanahi ere, erbestetik etorritako Ahizparteak izan behar zuten hauek.

Segur aski, biak ere, baserri honetara bildu omen ziren mojak frantsesak izango ziratekeen, eta beren egoitzari izen frantses bat jarri ziotenak eta, bigarren kasuan, herritarrek jarritako izena jaso zuena. Herri eta data ezberdinetan gertatu dira honelako etorrerak Euskal Herrian, eta Segurakoak, beste hainbesteren artean, kasu bana gehiago izango lirarteke. Une historiko larri batzuetan Frantziako erlijiosoak ihesi etorri behar izan zuten Penintsulara, edota lege jakin batzuen arabera hango Gobernuak iraitzita.

Hiru data ezberdinetan gertatu zen hori: 1791n, Iraultza Frantsesak Komentuak itxiz bere politika erlijiosorako Legeak bete arazi zituenean, lehenengo; 1880an, bigarrenez, aurreko dataren ondoko hamarkadetan izanberritutako Komentuak itxi arazi zituenean (epe labur bateko egoera izan zen hori, zeren eta isil-misilean berriro irekiz joan baitzen hainbat erlijioso-etxe), eta azkenik, 1903-1904.etan, Combes Ministroak Kongregazioen aurkako Lege berriak osorik indarrean jarri zituenean.



Mujardin: Baserri honen izena, bertan bizi izaten egondako moja-ahizparte baten orogarría da: “Nire Lorategia” (Mon jardín) deitu zioten etxeari.

Jakina da, 1789ko Iraultzak ondorio zabalak izan zituela Euskal Hegoaldean, ehunka elizgizon eta moja errefuxiatu baitzen gure lau Herrialdeetan, urte hartan bertan eta ondokoetan. Goñi Gaztanbidek eman du Iruñeko Diozesian gertatutakoaren berri, Segura ere tartean dela⁶³. Herri batzuetan elizgizon-emakumeon presentzia zama pisua izatera iritsi zen, beren kopuruagatik eta etorri berriak kale gorrian ezin utzi zirelako ogibide edo bizibideren bat eskaini gabe. Horretan garbi jokatu zuen Iruñeko Gotzainak. Esate baterako, Ordizian 31 elizgizon iheslari bildu ziren Frantziatik etorrira, Lazkaon 10, Beasainen 6. Seguraldeko Oria Goiena ez dirudi babesleku aukeratuegia izan zenik: Zeraina bat etorri zen, eta Segurara bi⁶⁴.

Ez dut jakin ahal izan Mujardin eta Ermasoroko lekaiameak Iraultza urteetakoak ziren ala 1880koak; ez dirudi, bestalde, 1903koak izan daitezkeenik, zeren eta haien oroitzapena lausotuegia ikusten baitut segurarren oroimenean, hain hurbileko gertakaria izateko. Eta zein Institutu Erlijiosotakoak ote ziren? Ez jakin. Hortaz, galdera gehiegi, eta erantzun gutxi. Lan honetako hainbat puntu bezala hau ere argitzeko eta zuzentzeko geratzen zaigu, bada.

4.3. ONGINTZA-ETXEKO KARITATEKO ALABAK (1887...)

Liburu honetako Garmendiaren lanean ikus daitekeenez, Segurak betidanik edo izan zuen, edo zituen, bere Ospitaleak, zahar, gaixo, ezindu eta pobreak zaintzeko. Mediku, zirujau eta botikarien ondoan, bestelako zerbitzari apalagoak ere elkartu ohi ziren zeregin horretarako; badirudi, garai bateko serorek honelako lanik ere egiten zutela, tarteka edo jarduera osoz.

Bestalde, Udaletxeko Artxiboan ikus daitekeenez, garai bateko Ospitale Batuen Erakundeak Ongintza-Etxeari (*Casa de Beneficencia*) egin zion leku, eta 1873an Ongintza-Patronatua eratu zenetik, gero eta nabariagoa gertatu zen babes-etxe honetan konfiantzazko arduradun finkoak jarri beharra. Herriko behar eta interes hauek zaintzeko dei egingo zaie Segurara San Bizente Paulekoren Karitateko Alabei (*Hijas de la Caridad de San Vicente de Paú/Fille de la Charité de St.-Vincent de Paul*).



Ermasoro (Ermanasoro): Baserri honen izena ere, ondoko eraikin bat moja-etxea izan zelako, herriak emandako izena da.

Eliz Lagundi honetako Ahizpek presentzia guztiz zabala izan dute, eta dute, Euskal Herrian. Gipuzkoan bertan 27 Ahizparte zituzten 1998an, beste edozein honelako eliz lagunartek baino gehiago, noski. Seguran bi Komunitate izatera iritsi ziren XX. mendearen bigarren erdian. Hauetako lehenengoa gaurko San Joan Egoitzan ezagutu duguna da⁶⁵.

Egoitza honetara etor zitezenean, 1887ko Martxoaren 9an sinatu zuten egoki zen hitzarmena Segurako Ongintza-Batzordearen izenean José López Romery-k, Mariano Joaquín Maller Espainiako Probintzia erlijiosoko Zuzendari Nagusiak eta Kasimira Astiz Ahizpa Probintzialak: lau Ahizpa ziren bertara etortzeko, zahar eta umezurtzak zaintzera, herritarrek Zurbanori erositako orube-eraikinetan. Hori zen lehenengo egitekoa; hala ere, laster ireki zen haurtxo eta nexka koskorrentzako Eskola ere (Eskola hau baimendua zegoen 1852ko Erret Dekretu baten bidez, eta Etxeko Arautegiaren arabera, handik aurrera, Ahizpen esanetara egongo zen berau).


Lan-eremu horiek ez ziren izan, ordea, Etxeko lantegia agortu zutenak: izan ere, 1916-1930. urteetan Donostiako Haurren Batzorde Babesleak udaleku bezala eduki baitzuen Etxe hau, harik eta 1931tik aurrera Aingeru Zaindari Aterpe-Etxea irekin zen arte. Dena den, gero ere batasun administratibo berean eraman zituzten Karitateko Alabek Egoitza eta Aterpea (Albergue), 1952a arte, eta 1970eko hamarkada erdia arte edo, Egoitzan eman izan zitzaion bizilekua Haur Batzorde Babesleak bidalitako hainbat hautxori.

Azpimarratzekoa da, herriko “Escuelas Nacionales” direlakoan ondolan, Karitateko Alabek beren Eskolaren bidez eskaini zuten irakaskuntzako bigarren ikas-hautabidea, nesken familia askorentzat baliagarri izan zena; horren osagarri, aldi berean Beasaingo Institutua ireki aurretik Batxilergoa egiteko aukera eskaini zuen Eskola horrek, eta zenbait urtetan tarteka-marteka emandako ikastaro “partikularrak” ezingo ditugu ahantzi⁶⁶.

1980.etatik aurrera, zeregin bakarra izan du izendatu ere Egoitza bezala izendatuko den honek: Zaharren Egoitza egokia izatea. 40ren bat lagunentzat prestatuta dago, eta, harez gero, Seguraldeko zaharrek hemen dute bizileku ongi prestatu eta bero bat. 1982an estreinatu zen Egoitza berriztatua, goitik behera erabat berritua.

Segurako Ongintza-Etxean eta berorren ondoko Zaharren Egoitzan lanean jardundako mojak 56 izan dira, gutxienez, 1887tik hona. Horietatik apenas inor Seguran bertakorik. Urte askotan eman izan zaizkien baldintzak gogoan izanik, herria eta eskualdea moja hauekin zinez irabazten irten direla esan behar da. Hori ulertu izan du Segurak, eta omenaldi handi bi ere eskaini dizkie Karitateko Alabei; bata, 1925ean, eta bestea herrian mendeurrena betetzean (1987).

Errealitate eta sinbolo erredugarri bezala Sor Ines Madariaga hautatu zen 1925eko omenaldian: bera izan zen Etxeko lehen Nagusia eta Seguran 55 urte eman ondoren 93 urterekin herrian bertan hildakoa (1942). Omenaldikoan “Herriko Alabatza” hartu zuten durangar hau, eta geroxeago Ongintza-Gurutzea eman zitzaion. Haren oroitzapena bizirik dago, orduan Egoitzako baratzean jarritako oroitarrian eta Udaletxean zintzilik egon izan den haren argazkian. Bigarren omenaldia berrikiagotan egin zitzaion moja hauei, 1987an. Herriak, Udalak eta Koruak hartu zuten parte, eliza-



Sor Ines Madariaga: Karitateko Alaben zerbitzuen eredu bat izan zen lekaime honen bizitza.

ko eta kanpoko ospakizunetan, mende beteko lanak eta zerbitzuak eskertzeko.

Gaur egun bizirik ditugun Karitateko Alaba segurarrak lau dira, bi Euskal Herrian (Ibarra, Mutriku) eta beste bi erbestean bizi direnak (Tenerife, Zaire). 2002an, Egoitza honetako mojak 4 lagun dira, eta beste 15en bat langile ditu Egoitzak, 40 gaixo-zaharrei lagundu eta suertatzen zaizkien premiak arintzeko.

4.4. VIATORTARRAK (1925-1942)

Viatortarren oroitzapena dagoeneko lausotzen ari da segurarren artean, eta komeni da erlijioso hauen aipua eta historia ere hona ekartzea. Frantzian, Iraultzaren olatualdi handiena pasa eta gero sortutako Erlijioso-Kongregazioetako bat da “San Viatorren Klerikoen” hau. Elkartea Lyon ondoko Vourles herrian sortu zuen L. Querbes-ek, 1831n, eta 1903an etorri zen lagunartea Penintsulara.

Euskal bokazioen alorra bizkortu nahi zutelarik (Euskal Herrian hogeitau urte egon ondoren ez baitzuten bertoko gazterik beren Lagunartera erakarri), Anai Enrike Amiel Segurara etorri eta Teodoro Ondarra Artzaparezekin harremanetan jarri zen, beren asmo eta beharrak adieraziz (1924). Baina viatortarrak Segurara herritik bertatik deituta etorri zirela esan daiteke.

Herriko gogo bati erantzunez, kasik urtebete geroago, 1925eko maiatzean, egin ahal izan zen lehenengo bilera, Seguran, alde batetik viatortarrak eta bestetik herriko Gurasoen Batzorde bat zirela. Lehenengo urrats zehatza emanda zegoen, beraz. Udazkenean Ikastetxea ireki ahal izateko baldintzak mugatu beharra zegoen, eta horixe izan zen hurrengo pausoa: Urte bereko abuztuaren 8an Eskoriatzan sinatu zen bi alderdien arteko hitzarmena. Segurako Guraso-Batzordearen ordezkaritza Serapio



Viatortarrak (1925-1942): Viatortarrek fraidegaien barnetegia eta herriko mutikoentzat ikastetxea izan zituzten Seguran. Hona ikasle-taldea, beren irakasleekin (1935).

Gorrotxategik eraman zuen, eta Simon Goia eta Nikomedes Intxausti joan ziren lekuko gisara; Teofilo Delmas-ek sinatu zuen viatortarren izenean.

Pentsa daiteke hain bizkor egindako bidea urratzen Don Teodorok lagundu zuela, herritarren borondateak elkartuz eta asmoa bideragarri egin zezaketen baldintzak mugatu eta segur aski alde bien arteko bitartekaritza eginez.

Hitzarmeneko lehen artikulua dioenez, Guraso-Elkarteak prestatutako ikasgelak eta eskola-langaiak eskaintzen zituen, eta hitzartutako baratztea ere jarriko zuen; fraide irakasle bakoitzeko Gurasoek 2.500 pezeta ordainduko zituzten urtero, hiruhilabeteko ordainalditan. Lehen Ikaskuntzako Eskolatarako pentsatua zegoen ikastetxea; viatortarren erantzukizuna izango zen bi fraide irakasle bertan jartzea eta udal ikastetxeek zituzten ordu beretan haurrei eskolak ematea. Ikastordu berezirik nahi zuenak fraide Zuzendariarekin hitzartuz konponduko zuen hori. Ikasleak 70 lagunetatik gora egiten baldin bazuen, hirugarren irakasle bat ere jarri beharko zuten viatortarrek.

Hitzarmen horrekin etorri ziren, beraz, viatortarrak Segurara, baina dena bideratu aurretik sortu zen gurean eragozpen edo zailtasunik franko. Egiaz, Guraso-Batzordeak bere zereginean ez zuen lortu adostasunik, eta hitzarmeneko konpromezuak Nikolas Artzelus-en bizkar geratu ziren (diru-arazoak, alegia). Sozialki herritarren erantzuna oso ona izan zen: 1925eko Urrian hasiera eman zitzaion ikasturterako 40 haurrek eman zuen izena, eta helduen ikastarorako 35 gurasok eta gazteren batek. Ikustekoa izango litzateke zer ispilatzen zuen hainbat herritarren erabaki horrek.



Lierniko Ermíta (Mutiloa): Segurako frantziskotarren arduren artean daude Ermíta ezagun honetako eliz zerbítzuak ere.

1926ko ikasturteak buruhauste berrituak ekarri zituen, N. Artzelus-ek aurreko urteko gisa berean laguntzen ezin jarraitua adierazi zuenean. Irtenbidea zera izan zen: Anaiek Eskola beren kontu hartuko zuten osorik, gelengatik alokairu txiki bat ordainduz. Horrela eta 69 gurasok ordaintzen zituzten kuotak lagunduta jarraitu ahal izan zen ondoko urteetan, baita II. Errepublikarekin eta partez Gerrarekin ere.

Ondoan ematen dugun argazkian (uste dugunez, 1935ekoa da berori) ikasle-talde ederra azaltzen da; agerian dago herrian izan zuen onarpen zabala. Hala ere, une txarragoak ere iritsi ziren, eta herritarren estimua ez zen nahikoa izan Eskolari eusteko; 1937an itxi behar izan zen viatortarren Eskola hau. Itxieraren arrazoa ekonomikoa izan zen, agirietan esaten denez: Eskola Publikoak doan eskaintzen ziren, eta fraideena ordaindu behar hori aldapa pikoegia gertatu zen familia askorentzat; ikasleek behera egin zuten, are gehiago gerratekoan.

Eskolaren itxiera gorabehera, Segurak bazuen erakarmenik viatortarrentzat eta 1939ko Irailaren 16an heldu zen bertara viatortarren lehenengo eskolastiko-taldea (erlijioso-gaiak); hau da, oraingoan zetozenak herritarrentzako eskola irekitzeko baino fraidegai zirentzat seminario txiki bat eratzeko heldu ziren. 60.000 pta. balio zituen etxea erosi omen zuten horretarako.

Berriro, herriko mutikoentzako ere laster ireki zuten, nonbait, Eskola, zeren eta ondoko urte gutxietan segurar multzo bat viatortarrekin eskolatu baitzen⁶⁷. Dena den, Eskolastiko-Etxeari bezala beste honi ere iritsi zitzaion bukaera. Ez ziren Segurakoak hura itxi arazi zuten arrazoiak: Viatortarren Probintzia Erlijiosoak ez zuen bere halako Ikasle-Etxe propiorik mantentzeko baliabide ekonomikorik, eta Segurako hau utzi egin



Arriaran: Auzo txiki honek eliza erraldoia du. Arriarango jaunek zuten beren eskuetan Santa Engraziako Zaingoa. Gaur egun Segurako fraideek daramate hemengo eliz ardura.

behar izan zen, Eskoriatzan zeuzkaten nobizioak Frantziara bidali eta azken hauen egoitzan jarri Segurakoak.

Viatortar klerikoen Segurako historiatic hori da jakin izan duguna, baina artxiboez gordeko dute beste albisterik ere. Viatortarren artean Segurako gutxienez bi bizilagunek bete zuten bizitza luzea: Joan Zubizarretak (Armaola baserrikoa) (1916-1999) eta Adrian Ormazabalek (1920-1997), azken hau Zegaman jaio arren Segurara etortzean viatortarren etxea aurrez aurre izan zuena, bera ere fraide sartu zen arte.

Segurako Etxearen itxiera 1942ko udan gertatu zen, fraidegaiak Eskoriatzarako irten zirenean⁶⁸.

4.5. ATERPE-ETXEKO KARITATEKO ALABAK (1952-1993)

Hau da Karitateko Alabek Seguran izan duten bigarren Ahizpartea (1952-1993), bere Etxea Aingeru Zaindaria Aterpe-Etxean duena, harik eta Lagunartea Donostiako Zarategi Egoitzara pasa zen arte.

Aterpe-Etxeko Ahizparteari beregaintasun osoa eman zitzaion 1952an, Aterpea Barnetegi eta Etxe-Sehaska bihurtu zenean, eta bertan lau laguneko Ahizpa-lagunartea eratzean. Etxeak 86 gazte har zitzakeen, eta, idatzi izan denez, 3.000 haurretatik gora hartu izan ditu Barnetegi honek bere berrogei urteko bizialdian⁶⁹.

Aterpe-Etxearen izaera aldatuz joan da, 1931n ireki zenetik: 1931-1951. urteetan Aterpe-Etxeak Udaleku gisara egin zuen lan, gehiago gabe, eta 40/50 laguneko bi haur-talde etortzen ziren, txandatu. Ongintza-Etxeko Ahizpen ardura izaten zen haur udatiarrei premiazko zerbitzuak segurtatzea. Aterpea Barnetegi bihurtu zenean, bertan Ahizparte finko batek jarri behar izan zuen.

Lehenengo bi hamarkadetan, hezkuntzarako baliabideak Aterpean bertan jarri ziren: Maisu Nazionalak eta Ahizparen batek osatzen zuten irakasleoa, eta azken hauen ardurapean zegoen gazteekiko gidaritza, gau eta egun. Lau ume-talde osatu ziren: bat 2/6 urtekoekin, eta beste hiru OHOkokin. Guztion zuzendaritza eta hezibidea Ahizpen ardura zen.

Antolakuntza horrek funtsezko aldakuntza izan zuen 1977an, urte horretan Aterpeko Eskola itxi egin baitzen, eta haurrak herriko Eskoletara pasatu baitziren. Hortik aurrerakoa ezaguna da: Seguran bertan eta Beasaingo Ikastetxe Publikoetan aurkitu zuten beren lekua haur eta gazteek.

Autonomi Estatutuaren osteko ondorio bezala, 1985ean Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskuduntza izan da Aterpe-Etxeari zegokiona, Gazteria eta Kirolen Departamenduaren ardurapean. 1993an gazteekiko hau dena birrantolatzean, hemengo Barnetegia Donostiara joan zen, eta Barnetegiarekin batera Karitateko Alaben Ahizpartea ere bai. 22 moja izan dira hemen lanean jardundakoak (1991ko datuek diotenez)^{69 bis}.

1993az gozotik Gipuzkoako Aldundiaren ardurape zuzenean dago Segurako Aingeru Zaindaria Aterpe-Etxea, Herrialdean premiazko eta balioko zerbitzuak eskainiz.

4.6. FRAIDE FRANTZISKOTARRAK

Seguran bakarka edo taldean bizi izan diren fraide frantziskotarren historia bi aldi ezberdinetan banatzen da, izan ere XIX. mendeko Esklaus-



Segurako frantziskotarrak: 1981etik hona Anaiarte honek daramatza inguruko herri eta auzoetako eliza eta ermitak.

trazioak bitan banatu baitzuen berauen Segurako historia. Zerbait esan da honetaz gorago, sorkundetarren Komentuaz ari ginela.

Segurako Aita Bikarioaren izendapena Probintzia frantziskotarreko aginte-erakunde nagusienari zegokion, hots, Probintziako Biltzar Nagusiarri (*Kapitulua*), eta, horregatik —esan dugu— Biltzar horietako agirietan agertzen dira Aita Bikario horien izenak. Ez da, ordea, gauza bera gertatzen Aita Bikario horren fraide-apaiz laguntzaileekin, horrelakoak ere egon izan baitziren, zenbat eta noiz garbiki ez dakigula, praktikan gaur “Anaiarte Txiki” deitzen ditugun horietakoren bat gertatzeraino⁷⁰.

Astiazarain-ek gogorarazten dizkigu, Mojen Kapilautzarekin batera bestelako Kapilautzak eraman behar izaten zirela Komentuan, halako ogibideak zituen zereginak betez eta berorien ordainetan soldata modukoren bat jasoz. Sor Maria Anaren kasuan (1655), bere hilburukoan esanda utzi zuen hori: kapilautza berriak urteko diru-multzo bat izango zuen, eta, horren laguntzaz, Probintzia frantziskotarrak Seguran bigarren fraide mezadun bat jarriko zuen. Maria Beatriz Arrue ongile eta mojak gisa berezuan jokatu zuen XVII. mendea bukatu baino lehen, 4.000 p.-ko Kapilautza sortuz⁷¹.

Horrek guztiak zera iradokitzen digu: Segurako frantziskotar kapilauek herrian izan zezaketen lekua, are gehiago beren ondoan erlatiboki hurbil zeukaten Arantzazuko Santutegia ere gogoan hartzen bada.

Baina horrek guztiak eten formal bat izan zuen Esklaustrazioarekin (1840), nahiz eta badakigun gertakari horren ondoko berehalako Kapilauak ere frantziskotar ohiak zirela. Dena den, Esklaustrazioaren ondorioz eman zitzaion bukaera Kapilau frantziskotarren tradizio zaharrari⁷². Gure egunak arte luzatu da eten hori, eta berrikitako frantziskotarren itzulera Donostiako Diozesiaren politika pastoralaren barruan eratu da, garai batean itxaron ez zitekeen erabaki eta bideetatik.

Fraide-Senitarte berriaren sortzean Arantzazuko Probintziaren eta Donostiako Diozesiaren arteko hitzarmena dago, hau da, Oria Goien edo Seguraldeko bailarari premiazko zerbitzu pastoralak ziurtatzeko asmoz sinatutako hitzarmena: Segura, Mutiloa, Zegama eta Zeraingo parrokien ardura hartu beharke zuen Senitarte berriak. Beste herrien artean, Segura aukeratu zen fraideen egoitzatarako, beraren iragan historiko eta erdigunetasun geografikoagatik eta hemen beste Etxe Erlijiosorik ere bazuelako. Akordioaren ondorioz, bailara honetako parroki zerbitzuak frantziskotarren ardurapean daude, eta egitekoari erantzunez, eskualdez haragoko pastoral-eremuko batzorde eta elkartasunetan ere parte hartzen dute, gainerako klero diozesitarraren gisa berean.

Beasaingo eta Segurako Senitarteak bateratu ondoren (1994), biek lehendik zituzten erantzukizun eta eskubide pastoral-sozialak orain Seguratik eramaten dira, eta ez Oria Goieneko bailara horretakoak bakarrik, baita Beasaindik zeuden besteak ere: San Martin Loinatz, Arriaran, Astigarreta eta Garin.

2000n, zortzi dira Senitarte honek zaintzen dituen parrokiak, eta ezin dira ahantzi beste elizguneak ere: lehenik Lierniko Andre Mariaren ermita-santutegia (Mutiloa), bere iganderoko Mezarekin, eta urteko egun jakinetan Mezarik duten beste ermitak: Segurako Beheko Gurutzea (maiatzaren 3an, irailaren 14an), Sta. Barbara (Igokunde-ondoko igandean), Santa Engrazia (apirilean), San Sebastian (urtarrilean) eta San Andres (azaroan)

PARROKIETAKO ARDURA

Ondoko urteetatik hona, aipatzen diren Parrokietako ardura Seguratik eramaten dute frantziskotarrek:

1981	Segura
1981	Zegama
1981	Mutiloa
1985	Zerain
1994	Loinatz
1994	Arriaran
1994	Astigarreta
1994	Garin

ermitetan, eta Zegamako San Pedro (ekainaren 29an), San Bartolome (abuztuaren 25ean), San Adrian, Santispiritu eta Aizkorrin; hauetako zenbaitetan maiz kanpoko edo herriko seme apaizen batek esku hartu ohi du. Kapilautzarik ere badute frantziskotar hauek, Seguran bertako Ahizparte erlijiosoentzat: Komentuko sorkundetarrena, eta Zaharren Egoitzako Karitateko Lekaime eta egoiliarrentzakoa.

Fraide-Senitarteko apaiz bakoitzaren ardura da izendatu zaizkion herri eta parrokia eramatea, inoiz bat baino gehiago ere bai, Erretore edo Bikario gisan edo Erretore-ordeko bezala.

Hauek dira Elizako Erlijioso-Erakundeek Seguran izan dute presentzia; ez da gutxi Seguraren tamainako herri baterako, baina kontuan beti eduki behar da herriak eskualdean izan duen betekizun zabalagoa, pastoralara ez ezik soziala ere. Ahal izango dugun neurrian, aurrerago esango dugu zerbait Segurako gizarteak eliz bizitzarako –apaiz sekular nahiz erlijioso gisara– eman dituen gizon-emakumeei buruz.

5. ELIZA ETA HERRITARRAK ELKARREKIN

Honainokoa eman dugun deskribapenaren ondoren, galde liteke herriko eliz antolakuntza hau guztiz bere gisara eta gainerako errealitate herritarretik at ibili den zerbait ote dugun. Ez dago horrelakorik, ezta hurrik eman ere. Kristandade deitu izan den antolaera sozio-erlijiosoan eratu izan dira gizartea eta Eliza aurreko mendeetan, kasik gure egunak arte, hau da: biak elkar-trabatuta, elkarri “aginduz”, elkarri lagunduz, elkar sostengatuz, bien artean gorputz sozial bakar harmoniatsua moldatu nahirik⁷⁵.

Kristandade-ereduari jarraituz, Seguran ere herritarrak eta eliztarrak bat etorri izan dira mendeetan zehar, eta, izaera sozial horren parekide, egoera instituzionala ere batera ibiltzen saiatu izan dira, harmonia zainduan bai, baina ez derrigorrez eta beti kontraesanik eta kontra-interesik gabe. Batasun dinamiko hau nola bizi izan den ulertzen laguntzeko ekarriko dugu hona Segurako zenbait albiste historiko.

5.1. UDALA ETA ELIZA, BATERA

Oro har, Erregimen Zaharreko elizak eta komentuk Zaingo (*Patronato*) baten babesean sortu eta bizi izan ziren, hau da, ia beti norbaitek izaten zuen babesletza-eskubidea haien gain. *Patrono* edo Zaintzaile hori Erregea izan zitekeen, nahiz eskualdeko edo tokiko aitor-seme edo handikiren bat, eta Udala bera ere bai; sarrienik, Zaingoaren eskubide eta ardurara eliza edo komentuen fundatzaileak berak hartu ohi zuen bere gain, beretzat eta ondokoentzat.

Zaingoaren izaera fundazio- edo sortze-unean mugatu ohi zen, eta fundazio-agirian esaten zen nolakoak izan beharko zuten elizan edo komentuan esku hartzerik izan zezaketenen arteko eskubide-banaketak eta gobernu-prozedura praktikoak. Elizari buruz ari garenez, bertako betekizun erlijiosoek zuten, noski, lehenengo lekua (aitortzen ziren asmoetan, bederen), baina bertako erantzukizun materialak ezin ziren ahortzi. Bestalde, begi-bistakoa zen eliza, parrokia nahiz komentuen gobernuan parte hartu behar zutenek ez ezik kristau-herriak ere tokirik behinena behar zuela eliz erakunde horietan, zeren eta herria baitzen, azken



Agintariak elkarrekin: Herriko eta elizako agintariak elkarren arteko lankidetzarik franko izan dute Seguran. Argazkian, Segundo Legorburu Alkatea eta On Zesareo Elgarresta, Segura Irratiko ospakizun batean.

buruan, zerbitzatu behar zena eta erlijiotasun ofizialaren erakundeei sostengu ekonomikoa ere eman beharko ziena (hamarrenak, hasikinak, zentsuak, limosnak, etab.).

Eliza edo komentuarien gain Zaingoa zuenak izan ohi zituen eskubideen artean bi gogoraraziko ditugu hemen bereziki: Parrokietan Bikario edo Benefiziatu-gaia aurkezteko ahalmena izan ohi zen sarrienik eskumen giltzarria, eta horren ondoren erakunde zainpekoari zegozkion errenta eta sarrera ekonomikoetan hainbesteko bat eskuratzeko eskuduntza, oro har eliz administrazio osoa begiratzen zen bitartean. Arrazoi bategatik edo bestegatik eskubideok eskuratuz gero (lur-orubea emategatik, elizaren eraikuntzan laguntzeagatik, segurtasuna bermatzeagatik, etab.), tokian tokiko edo eskualdeko handikiek edo Ahaide Nagusiek ahalegin guztiak egin izan zituzten, noski, ahalmen horiek gordetzen eta betearazten⁷⁴. 1851ko Konkordatuaren ondorioz desagertu ziren gure elizetako Zaingo hauek⁷⁵.

Goierriin Lazkaoko Jaunek (Valmediano-ko Markesek) Olaberri, Idiazabal edo Mutiloko elizen gain zuten, adibidez, Zaingoa, izendapenatarako eta hamarrenetan parte izateko eskubideekin; Zeraingo parrokiaren gain, ostera, Zerain Sortetxeak (Vargas-ko Markesak) zuen Zaingo-eskumena. Arriarango jaunena zen, ostera, Santa Engraziako Parrokiako Zaingoa. Gainerakoan, Zegaman eta Seguran ez zen izan hori horrela, eta bietan Hiribilduarena zen bertako parrokiatako Zaingoa⁷⁶.

Hortaz, Segurako Hiribildua abiapuntu abantailatsuan zegoela esan daiteke Andre Mariaren Parrokiako gobernuan eskurik izateko, Bikarioaren hautapenerako aurkezpen-eskubidea berea baitzuen. Izendapen ondoko eliz administrazioarako Bikarioari uzten zitzaion ahalmena, ondoko Batzorde edo Administrari laikorik gabe (Ormaiztegin, alderantziz, administrazioa alkate, maiordomo eta parrokoaren eskuetan zegoen bitartean), baina betiere Udalaren oniritziarekin jardunez. Herriko eliz goipolitika Udalaren eskuetan zegoen, eta baita administrazioaren kontrola ere, jarduera arruntaren arduraduna Bikarioa zelarik. Horrela, bada, Udalaren interesen artean zegoen udal eliz politika zaindu eta Hiribilduak horretan zituen goi-eskubideak gordetzea. Segurako herriak zituen abantailatako bat zen Parrokiaren Zaingoa, eskubide hori eliztarren esku bakarrik utzi gabe eta, okerrago gerta zitekeena, Ahaide Nagusiren baten menpe erori gabe. Gipuzkoako 241 parrokiatako (1862) 45 ziren Zaingo herritarra zutenak (Zaingo *merelego* deituak), eta Segurakoa zen hauetako bat; beste 49 Zaingo partikularra edo *divisero*-a zutenak; Zaingo eliztar hutsak gutxi ziren (16)⁷⁷.

Ez gara, bada, deus harrituko Segurako Udal Artxiboan Elizari zegoen hainbat paper eta agiri aurkitzen baldin badugu. Herritar xumeen borondate eta lanarekin eta herriko handikien botere ekonomiko-sozialarekin batera, Hiribilduko boterean bi zutabe nagusi egon ziren Seguran Udal Kontzejua eta Eliza, baina biok hertsiki lotuta, Kristandade-giroan ohizkoa izan zen gisan. Kanpandorreko erlojuaren historiatxoa (1561) izan daiteke elkartasun edo batasun horren sinbolo bat: 1580an eguneroko ordutegia zuzen eramateko —hau da, lanerako eta elkar-bizitzarako— premiazko ikusi zen elizako kanpandorrea gorantz eraikitzea, bertan erlojua jartzea, horrela —esango luke batek— bizitza zibila eta erlijiosoa harmonia onean eta batera joan zitezen.

“

**Eliza segurar guztien
bilgune gertatzen zen,
muru-barnean bizi
zirentzat bezala beren
bizitza baserrietan egiten
zutenentzat**

”

1903an Aste Santuko soldadu erromatarrei jantzi berriak egitea erabaki zuen Udalak, eta Udaletxetik Aste Santuko prozesioena bereziki zaindu izan da, Aktetan ikus daitekeenez.

Eliza, bestalde, segurar guztien nahitazeko bilgune gertatzen zen, murrubarnean bizi zirentzat bezala baserrietan beren bizitza egiten zutenentzat. Hiribildua sortu eta zenbait hamarkada geroagotik (1348), segurar izatea herriko parrokiari atxikirik bizi izatea zen, herriko Udal Kontzejuak erabaki zuenez (ez parrokiako Bikarioak):

...seyendo sanos, que en las tres Pasquas del anno que vengan a oyr misa a la iglesia de Santa María de Segura, et quando murieren que vengan de enterramiento de sus cuerpos al çimenterio de Santa María de Segura.

Hori horrela nahirik, zera erabaki zen, gainera: murruetatik kanpo baserrietan bizi eta hildako segurarrei, lehendik ez bazuten, hilobi bat eskainiko ziela Kontzejuak. Eliza, beraz, murru barruko eta kanpoko segurar guztien batasun-zinua zen⁷⁸. Bestalde, Barrenak liburu honetan bertan azpimarratzen digunez, Kontzejuaren bileretarako lekuak toki sakratuetan bilatu ohi ziren XIV-XV. mendeetan⁷⁹.

Herritarren, Udalaren eta Parrokiaren hurbiltasun horrek ekarri zuen, adibidez, Udal Artxiboa bera ere Parrokian gordetzea. Ez da hau berariaz Segurako bitxikeria, beste hainbat herri eta Udaletan gertatua baizik. Garai bateko herrietan elizak ziren artxibategitarako eraikinik seguruenak, lapur eta suteen kontra, eta bilgune sozial estimatuenak (gogora Bizkaiko *Elizateak*). Herrialdeetako Batzar Nagusiek ere eliza eta komentuetan bilatu izan zuten segurtasun hori.

Erdi Arotik zetozen hurbiltasun sozio-eliztarrak -esan behar da- ez dira guztiz galdu eta XX. mendean ere bizirik ageri zaizkigu hainbat ohitura eta keinutan: 1903an Aste Santuko soldadu erromatarrei jantzi berriak egitea erabaki zuen Udalak, eta era berean Aste Santuko prozesioena bereziki zaindu izan du (1907, 1914, 1917...). Batzuetan xehetasunetaraino iritsiko dira udal erabaki edo adierazpenak, adibidez 1915ean, Lezeta zinegotziak proposatuta Sortzez Garbiaren egunerako sermolari jakin bat eskatzeko adieraziko zaio Bikarioari (1915: Arantzazuko Goardianoa edo Aita Arrue, esango da). Udaletxeko Akta eta kontu-liburuetan ehunka datu jaso daitezke esanahi bertsua dutenak.

5.2. HERRITARRAK ELIZ ELKARTEETAN

Herriko aginte eta erakunde nagusiek –Kontzejuak eta Elizak– harreman estuak izan badituzte, herri-jendea ez da atzera geratu izan Elizarekiko harreman horietan, eta Eliza bera ere saiatu izan da herriko kristauek Elizarekin lankidetzarik izan zezaten. Erlijiotasun herritarrak, bada, aurkitu izan du biderik Parrokian eta beste elizetan elizgizon eta eliztarrekin harremanik lotzeko.

Hain zuzen *Kofradia* deitzen funtsezko egiteko bat horixe izan da: kristau herritarrei elizako bizikidetzarako eta elkar-lanerako bideak samurtzea. Eliz Elkarte hauek dira erlijio instituzionalak kristau herritar xumeari eta beronen eliz presentzia pertsonalari eskaini izan dien talde-elkartasun praktikoa.

Sakramentuak eta Liturgi bizitza misterioan eta fedez bakarrik dastatu behar ziren, baina bete beharreko arauen barruan. Batzuk bizitzan behin hartzekoak ziren: Bataioa, Sendotza... Azken buruan, bizitzako gertakari erlijioso bakanak. Eta besteak, berriz, oso noizbehinka hartu ohi zirenak:

Bazkoazkoak -Aitortza eta Jaunartzea- nahikoa lanik eman izan zion hainbat kristauri (dotrina ere tarteko zela...), batez ere hobe nahiez “txartela” ere eraman behar izan zenetik.

Nahitaez bete beharreko horien ondoan Kofradiak bestelako moldaerak zituzten, eta abantailaren batzuk ere bai:

1. Kezka erlijiosoen artean norberari zegokion lekua definitzeko balio zuen Kofradiak (jaiera, otoitz-moduak, kristau xedeak...), Parrokia eta elizetan Elkarte hauetako bat baino gehiago egon ohi zen eta.
2. Libreki sar zitekeen fededuna halako Elkartean, jende kidekoa zuen Kofradia hobetsiz, eta norberak aukera zezakeenari atxikiz.
3. Kofradian elkartasunean egiten ziren gauzak (elizkizunak, ospakuntzak, jendaurreko otoitzaldiak); hainbat herritarrentzat (gogora batez ere baserriak) gizarteratzeko abagunea ere bazen Kofradia.
4. Eta bazegoen norberaren debozio pribaturako lekurik, salbazioa norbere gisara ere bila zezan.
5. Oso klerikala zen Eliza batean, kristau laikoari gutxieneko protagonismoren bat ere ematen zioten Kofradiak.
6. Kofradiak gizarte orokor anonimotik bereizi egin zezakeen kristaua, eta bazkidea maila sozial jasoago batera eraman, kristautasun “luzituagoa” eskainiz.
7. Kofradia, azkenean, Elkarte erlijiosoa ez ezik maiz zibila ere bazen, bazkideek elkarri laguntzeko erata, orain eta gero Jainkoaren eta Santuen aurrean ez ezik mundu honetako bizialdian ere. Alde sozial honek balio aparta zuen herritarrak babes sozial hoberik ez zuen mende haietan.

Argibideok gogoan ditugula, laster ulertuko da Kofradiak herrian izan zezaketen garrantzia. Seguran ere Kofradia eta mota guztietako eliz Elkar-



Kofradiak eta eliz elkarteak: Prozesioetan ez ezik Elkar-teok beren bizitza izan dute Seguran, eliz barruko elizkizunetan, familietako debozioetan eta inoiz baita eskaintzen zituzten heziketa, aisia eta laguntza sozialetan ere. Argazkia: Elkar-teetako estandarteak.

teak egon dira, eta beraien banako historia idazteko dagoen arren, azal dutako puntuok iradokitzen digute historialariarentzat Elkartetako parte hartze libre eta pertsonalizatuago honek zein interes izan dezakeen herritarren erlijiotasunaren historia ezagutzeko.

Segur aski artxiboetatik kanpo eta gure oroimenean galduta dago egon izan den hainbat Kofradiaren aditzera, baina historialariek aipatzen dizkigute antzinako batzuk, eta erraz bila daitezke agiritegietan beste batzuen albisteak ere. Hasteko, agirizatuta dago San Andresko Ermitan indarrean zegoen San Andresen Kofradia, (XIV. mendekoa: 1374), eta Agirre Sorondok eta Barrenak ematen digute berorren berri hemen. Egia esan, batek ez daki Kofradia hura zenbateraino zen errezora eta eliz betebeharrarako eta zenbateraino zen “alderdi politiko” bat Hiribilduaren eskubideak Ahaide Nagusien aurka zaintzeko. 115 auzo-lagun omen ziren Arautegi jakin baten esanetara Hiribildua armaz ere defendatzeko elkartuak, *Erras-tiolatzako* San Andresen Kofradia honetan⁸⁰.

Artxiboetan geratu zaizkigun agirietatik ikus dezakegu Segurako Kofradiak zeintzuk izan ziren, betiere Andre Maria Jasokundekoaren elizakoez ari garela: Errosarioko Kofradia da Aro Modernoan lehenengo ageri zai-guna (1502), gero datoz besteok: Hirutasun Santuarena (1683), San Jose-ren Kofradia (1703), Jesusen Bihotzarena (1747), Otoitz-Apostoluzakoa (1882) eta XVIII.ekoa da Santiagoren Kofradia ere⁸¹. Hauek dira Erregimen Zaharrean aurkitzen ditugun Kofradiak. Gorde den dokumentazioari astindu on bat eman beharko litzaioke, bazkideen kopuruak eta be-rauen bilakaera ezagutzeko ez ezik kronologia hobeki finkatzeko; era berean, bakoitzak izan zuen bizitza jakiteko ere.

Itxuraz, Parrokiako paperetan ageri ez zaigun Elkartek bat ere gogoratu nahi dut hemen: Frantziskotarrek sustatu ohi zuten herritarren Hirugarren Ordena. Elkartek honen Euskal Herriko historia egiteke dago, eta jakin ere ez dakigu Seguran Aro Modernoan halakorik egon zenik, baina posibletzat eman behar da, frantziskotarren beste Kapilautzetan sortu baitziren horrelako Anaiarteak (urrutirago joan gabe, Oñatiko Bidaurretan, adibidez).

Aro Garaikideak, Kofradiak ez ezik pastoral-bizitzarako Elkartek berriak ekarri zituen. Leon XIII.a izan zen sekularren Elkarteez berezikiago arduratu zena, jaierazkoak baino ekinezkoak bultzatuz. Hori gertatu zen frantziskotarren Hirugarren Ordenarekin (1883), eta badakigu nolako indarra hartu zuen Elkartek honek Euskal Herrian. Seguran ere Senitarte hau 1908an sortu edo birsortu zen, orain behintzat Parrokian bertan. Hirugarren Ordenaren hau testuinguru zabalean lekutu behar da, bere esanahi orokorra ere ulertzeko. 1934an, 44.612 hirugarrendar zeuden Euskal Herrian (frantziskotarren menpekoak bakarrik gogoan hartuta), eta horietako % 49 gipuzkoarrak ziren. Segurako Anaiarte hirugarren-darra Arantzazuko Satutegiaren barrutikoa zen, eta hango fraideen ardurapean zegoen, beraz. Santutegiaren barrutian 4.836 zeuden aipatu-tako urtean, eta hauetako 436 segurarrak ziren⁸². 1960aren inguruan 110 anai-arreba zituen. Helduek parte hartu ohi zuten Hirugarren Ordena honetan⁸³.

Mutil eta neskontzako Antoniotar Gaztedia izan zen Seguran eratu zena, artean ez baitzegoen gazteak elkartuko zituen “Ekintza Katolikorik”. 1914an sortu zen Segurako Antoniotarren lagunarte hau, Aita J. D.



Irrati-Etxea: Irratia sortu aurretik eta gero, hainbat zeregin izan ditu eraikin honek. Katekesirako balio izan zuen, zinema eta antzerkietarako ere bai, eta, azkenik, bertan hasi zen eta jarraitzen du lanean “Segura Irratiak (1956...)”.

Epelde frantziskotarraren eta Domingo Agirre Bikarioaren gidaritzapean, Parrokian noski eta Parrokiako Elkarte bezala⁸⁴. Gipuzkoako hainbat herritan egon ziren “Luistarren” antzekoa zen Antoniotarrena, baina kasu honetan erakundez eta izpirituz frantziskotarrei lotua zegoen, San Antonio Paduakoa Zaindari eta eredutzat hartuz.

Segurako talde honen albiste xumeak Zarauzko *Bandera Antoniana* zeritzan aldizkarian ikus daitezke, eta inoiz kronika luzeagoren bat ere badu, Kostaldeko herri honetara segurarrek egin zituzten ikustaldiak zirela eta (1930, 1944)⁸⁵. Une hobe eta eskasagoak izan zituen Antoniotar Gaztediak, eta gerraostean On Joan Alkortaren eskuetan ezagutu zuen bigarren loraldi bat (197 gazte zituen 1944an). Lagunarte hau 1970 ingurura arte indarrean egon zen Seguran, herriko gazteei Elkarte zabal bat eskainiz, urteroko San Antonio Jaia ospatuz eta aldian aldiko Sakramentu-bizitza sustatuz. Arantzazuko Amaren Kofradia ere urte-modu haietakoa da (1918).

ELIZGIZON-EMAKUME SEGURAR OSPETSUAK		
<i>Izen-abizenak</i>	<i>Urteak</i>	<i>Karguak</i>
Pedro Apaolaza	c. 1575-1644	Obispoenea/Apaolazan jaioa. Barbastro eta Albarracingo Gotzain izana, eta Zaragozako Artzapezpikua (1635).
Ana Bautista Urbizu	1591-1675	Komentuko Abadesa, eta santutasun-iritzian hildakoa.
Joan Antonio Lardizabal	1682-1733	La Puebla de los Angeles-ko (Mexiko) Gotzaina, eta gero Mexikoko Artzapezpikua.
Jose Ignazio Gerriko	1740-1824	Mutiloko benefiziatua, eta gipuzkera idatzia finkatu zuten idazleetakoa.
Manuel Agirreburualde	1770-1831	Tarragonako Katedraleko diruzaina, eta hango Artzapezpikutzako Gobernadorea.
Eustakio Izagirre	1836-1905	Buenos Airesko Katedralean kalonje penitentziaria. Komentuko ongilea.
Ignazio Maria Aranburu	1852-1835	Josulaguna, Burgos-en eliz ekimen sozialak bultzatu zituen. Santu-izendapen bidean da (1970).

Mariaren Alabek eta Ekintza Katolikoak historia xehea merezi dute; baina, oraingoz besterik ezinean, aipu labur batera mugatu beharko dugu. Badakigu gutxienez 1902rako eraikita zegoela Mariaren Alaben Elkartasuna, “Segura-ko Mariaren Alaben Bazkuna”k bere kontu-liburua baitu jada urte hartan⁸⁶. Gerraostean oso bizirik egon zen lagunarte hau, On Zesareo Elgarrestaren ardurapean eta, uste dudanez, Ekintza Katolikora bilduta zelarik. Azken Elkarte honek, berriz, esku beretatik gidatuta, eliz barneko ospakizunak ez ezik ekimen sozialagoak ere izan zituen gerora. Dena den, Elgarresta bera izan zen Mariaren Alaben Elkartea, Ekintza Katolikoa eta Katekesia bere gidaritzarekin batu zituen.

Jaierazko beste eliz lagunarterik izan da, noski, baina hurrengo aukera baterako utziko dugu guztien historia orokor bat moldatzea.

5.3. ELIZGIZON-EMAKUME SEGURARRAK

Segurako seme eta alaba leinargien artean nabaria da elizgizon-ema-kumeen presentzia. Ez da hau guztien aipu eta biografiak ematen hasteko lekua; hala ere, zilegi bekigu aurreko mendeetako enen garrantzitsuenak gogoraraztea:

Izen handiak gorabehera, gogoan hartzekoa da herriko sendien tradizio eliztarra ere, eta beren seme-alabak Elizarako eman dituztenena gogorazi nahi dugu. Iragan mendeetan sarri aurkitzen dugu horrelakorik, Seguran ezagunenak izan diren familia handikietan; eliz bide hori urratzeko orduan aukera gutxiago zuten, noski, familiarte apalagoek. Liburu honetan Aginagaldek eman dizkigun familien laukietan errepara daiteke handikien familiek zein leku izan zuten eliz karguetan, maizenik herrian bertan, benefizio-sistemak lagunduta edo dote onak jarriz. Segurako Parrokia eta Komentu bakarrean zeuden aukerak lagundu zieten segurak horiei, baina ez ziren gutxi eta mainguak izan erbestera joan eta Penintsulan nahiz Ameriketara beren bidea asmatu zutenak (Onramuño, Arrue, Apaolatza, Goiburu, Pikasari, Lardizabal, etab.).

Aro Garaikidean ez dira gauzak juxtu era berdinean gertatu, baina badago zer kontu. Gotzainen artean, Jose Maria Cos y Macho edo Mateo Mujika Urrestarazu ezin dira aipatu gabe utz. Hura (Kantabriako Terán herrian jaioa: 1838; Valladolid-en hila: 1919) Santiago de Cuba (1889), Madrild-Alcalá (1891) eta Valladolid-eko (1902) Artzapezpiku izan zen, eta 1911n Kardinal izendatua; bere lehen latin-ikasketak Seguran egin zituen Cos jauna, gero Historia Akademiako kide izatera iritsiko zena. Haurtzaroko ikasterria gogoratuz, hona egindako ikustaldi batean eliza sagaratu zuen, 1892 uztailearen 24an, eta Udalak herriko semetzat izendatu zuen.

On Mateo Mujika (orduan Segurakoa zen Urtsuaran-en sortua: 1870), Burgo de Osma (1918), Iruñe (1924) eta Gasteizko (1928) Gotzaina izan zen. Errepublikarekin bezala Franco-rekin, ordu zailak bizitzea suertatu zitzaion, une bakoitzean maite zuen egia goraki esateagatik. Euskal Herriko Gotzainen zerrendan ohorezko lekua irabazita du harez gero. Zarrutzen hil zen, 1968an, bere Gotzaindegitik baztertua izan eta urte anitz geroago, 98 urte zituela. Seguran zor jakin bat ere badiogu: Udalak eskaturik, 1911ko Euskal Jaietan hemen emandako hitzaldia, elizan esana eta *Euskal Herriaren Alde* aldizkarian argitaratua emana.

Baina gatozen apaiz, fraide, moja eta eliz xumeagoetara. Ondoko lauki hau behin-behinekoa da, gaur egun segurarren oroimenean bizirik aurkitu ditugun enenak jaso dira lauki honetan; artxiboetara jo izan bagenu, denboran atzerago ere joango ginatkeen, noski. Izendegi hau Karmentxu Etxeberría Andereñoak eskuratu dit, ia osorik; Josulagunena osatzeko Loiola Probintziako Isidro Sans-en laguntza izan dugu. Oraingoz bego horretan, egunen batean osatzeko itxaropenarekin.

Diozesietako Apaiz sekularrak ez dira gutxi izan herrian, batez ere 1940tik 1960rako tartean Seminarioko bidea hartu zutenen artean. Xehetasun gehiegitan sartu gabe, oharren bat edo beste egin daiteke honetaz. Emakumezkoen artean 41 izen ageri dira hor, eta gizonezkoetan 28 (baina oharretan aipatzen direnekin osatu behar dira haiek eta hauek). Segura bezalako herri baterako kopuru jasoa⁹⁴.

Badago alde jakingarri bat: gizonezkoetan ia denak kaletarrak dira, hiru izan ezik: Joan Zubizarreta (Armaola) Patxi Albizu (San Andres) eta

Ondoko laukian ikus daitekeen bezala, batez ere XX. mendean apaiz edo erlijioso izan den segurak sail bat bada: 41 erkijiosa ageri dira zerrendan, eta 28 apaiz-fraide. Diozesietako apaizen ondoan, 17 Institutu ezberdinetakoak izan dira Segurako erlijioso hauek.

GIZONEZKOAK: SEGURAN JAIOTAKO APAIZ ETA ERLIJIOSOAK

<i>Eliz Erakundea</i>	<i>Izen-abizenak</i>	<i>Sortetxea</i>
Apaiz diozesitarrak ⁸⁷ (11)	Eustakio Telleria (†) Antonio Telleria (†) Gregorio Bereziartua (†) Gumersindo Ondarra (†) Teodoro Ondarra (†) Daniel Aierbe (†) Mikel Etxeberria (†) Luis Telleria Patxi Albizu Ignazio Arantzadi Antonio Arantzadi	K. Nagusia, 40 K. Nagusia, 40 Bereziartuenea Ondarraenea Ondarraenea K. Nagusia, 40 K. Nagusia, 23 Antoniorrokeenea San Andres Jauregi (Txakarra) Jauregi (Txakarra)
Josulagunak ⁸⁸ (9)	Jose Lasa (†1895) Ignazio Maria Aramburu (†1935) Telesforo Telleria (†1939) Migel Maria Zubiaga (†1992) Isidro Goikoetxea (†1978) Karlos Goena Dionisio Arantzadi Frantzisko Auzmendi (†1984) Joan Mari Izagirre	- - - Jermanenea Lizardi (Urtsuaran) Albaiteroenea Jauregi (Txakarra) Goiko Panaderia Xaxtrenea
Frantziskotarrak ⁸⁹ (5)	Jose Martin Imaz (†1918) Ramon Lezeta (†1962) Serapio Intxausti (†1964) Joxe Agustin Etxeberria Joseba Etxeberria Joan Ignazio Larrea	- Sakristauenea K. Zurbano, 17 Estebanenea K. Zurbano, 26 Madalena
Viatortarrak ⁹⁰ (2)	Joan Zubizarreta (†1999) Adrian Ormazabal (†1997)	Armaola Prontxionea
Agustindarra (1)	Jabier Gorrotxategi	Nagusia, 25

EMAKUMEZKOAK: SEGURAN JAIOTAKO LEKAIME ETA ELIZTARRAK⁹¹

<i>Eliz Erakundea</i>	<i>Izen-abizenak</i>	<i>Sortetxea</i>
Sorkundetarrak ⁹² (7)	Josefa Telleria (†1923) Balentina Artzelus (†1968) Maria Antonia Lezeta (†1982) Andresa Aranburu (†1944) Florentina Ondarra (†1993) M ^a Asuntzion Auzmendi Julene Etxeberria	Arrizabalaga Goiko Karnizeria Sakristauenea Erbiola Kojoenea Goiko Panaderia Estebanenea
Karitateko Alabak(6)	Ana Gerriko (†) Nikolasa Agirre (†) Presentación Aldasoro Petra Arrondo Ixiar Etxeberria Maria Luisa Elortza	Katarreta Justoenea Aizkoeta Erdikoa Pagamuño Txiki Estebanenea Argiñenea
Mariaren Frantziskotar Misiolariak (6)	Maria Aseginolaza (†1981) Joanita Mendizabal (†) Elena Goia Modesta Aranburu Salome Auzmendi Belen Aldanondo	Andraundieta Urruztiñenea Goiko Zapateria Erbiola Goiko Panaderia Meiñonea
Klaratarrak (6)	Poloni Gereñu (†) Joana Murua (†) Frantziska Insausti (†) Ignazia Arantzadi (†) Nieves Goia Maria Luisa Ordozgoiti	Arginetxe Lesaka Aizkoeta Goena Jauregi (Txakarra) Goiko Zapateria Errota Berri
Mariaren Lagundia (6)	Nieves Bereziartua (†) Eduarda Bereziartua (†) Demetria Aldanondo (†) Emeteria Aldanondo (†) Maria Ignazia Goikoetxea (†) Rufina Izagirre (†)	Bereziartuaenea Bereziartuaenea Aldaola Aldaola Aldatabarren Goikoa Aldata Erdikoa
Karmeldar Oinutsak (2)	Isabel Telleria (†) Maria Anjeles Ariztimuño (†)	Zerain-Sagasti Arrabiola
Bernardarra (1)	Joxepa Alustiza	Omiño
Domingotarra (1) (Sta.Katalinarena) ⁹³	Arantza Gerriko	Agirre Berri (Etxezuri)

EMAKUMEZKOAK: SEGURAN JAIOTAKO LEKAIME ETA ELIZTARRAK⁹¹

<i>Eliz Erakundea</i>	<i>Izen-abizenak</i>	<i>Sortetxea</i>
Miren Bihotzaren Alaba (1)	Luxia Albizu	San Andres
Misiolari Ebanjelikoa (1)	Rosario Ugalde	Aldata-Goena
Eudestar Alaba (1)	Mariatxo Katarain	Etxeberri
Berrizko Mesedetakoa	Dolores Artzelus (†2001)	
Brijidak	Maria Prudentzia Imaz Sta. Teresarena (†1900) Tomasa Irazusta San Antonioren (†1909)	

Joan I. Larrea (Madalena-Goardaenea). Emakumezkoetan, alderantziz, %60 dira baserritarrak. Zergatik alde hau? Ageri zaizkigun familiarteetatik azpimarratzekoa da, kopuruz, Etxeberriatarren saga (5/6), eta Arantza-di sendi bakarraren ekarpena (4/7). Kronologiari begiratzen baldin bazaio, ez dut uste 1970etik hona Seguratik inor fraide edo apaiz joan denik, eta emakumezkoetan hor nonbait. Elizgizon eta emakumeon artean, badira eliz bide instituzional hori utzi dutenak (sei-hamarren bat, segun nola zenbatu nahi diren).

Eliz Erakunde eta Institutu erlijiosoen aldetik, apaiz diozesitarrek ageri dira kopuruz lehenengo, josulagunak gero (baina bi mende oso hartuta) eta frantziskotarrak ondoren; emakumezkoen artean, moja frantziskotarrak dira (hiru Institutu ezberdinetakoak: sorkundetarrak, klaratarrak eta Mariaren Frantziskotar Misiolariak) ugariak: 19 lagun; Karitateko Alaba segurarrak 6 izan dira, eta Mariaren Lagundian beste hainbeste baina dagoeneko denak hilak; bi karmeldar ditugu (biak hilda) eta beste bost, beste hainbeste Institutuetako bana.

Banan-banan historia erlijioso pertsonalak izan dituzte horiek guztiek, oro har historia isilak, apenas barrunta daitezkeenak; baina bada erlijioso bat XIX-XX. mende-tartean bizi izandakoa, eta gerokoen artean oihartzun bereziagoa izan duena.

5.4. IGNAZIO MARIA ARANBURU (1852-1935)

Erljiotasunaren eta Elizaren historia santutasunaren historiari gabe eskasa izango litzateke; horregatik, erakunde-sistemak izan ditzakeen hutsune eta akats guztiekin ere, santutasunarena sustatu eta lortu bada (fededunen artean, oro har, eta pertsonalitate jakin batzuetan goi-mailaraino igoz), Elizaren iragana irabazita dela esan daiteke. Seguran bada, bertako seme bat, santutasun-sona izan zuena eta aldaretarako bidean edo dena: I. M. Aranbururi buruz esan nahi dugu, bada, zerbait.

Ignazio Maria Aranburu Alustiza Seguran jaio zen, 1852ko urtarrilaren 31n, eta hurrengo egunean bataiatu zuten⁹⁵. Gurasoak: Joan Frantzisko Aranburu arriarandarra eta Bautista Ignazia Alustiza zeraindarra izan ziren, 1848an Zerainen ezkondu eta Seguran bizitzen jarriak. Aita arotzak (“arriarandarrak”, Seguran deitzen zitzaion eran esateko) lan eta obrarik franko egin zuen herrian. Lau seme-alaba izan zituzten arren, artean oso haur zela hil zen anaia bat eta arrebetako bat ezkonberritan (1885). Inaxio Marik, bada, arreba bat bakarra izan zuen gero Seguran, gerraostean artean bizirik zena (1941): Leandra Maria Aranburu (1850...). Zenbait urtez herriko zinegotzi izan zen Joan Frantzisko aita, eta inoiz alkateorde ere bai⁹⁶.

Gurasoak Hirugarren Ordenakoak ziren biak, eta kargurik ere izan zuten elkarte horretan, eta Joan Frantzisko San Joseren Kofradiako Buru. Etxean hartzen zituzten apendizekin ere familiarterko otoitzaldiei eutsi egiten zieten: errosario, bederatzirren, etab. Arantzazura oinez urtero joateko ohitura zuen familiak, *Benedicta* enkargatu eta otoitz egitera⁹⁷. Urte anitz geroago, Burgos-en maitekiro gogoratzen zituen Aizkorri eta Arantzazu aldeko parajeak⁹⁸. Seguran oso bertan geratu zitzaion sendia: hemen zituen Jabier Mujika Aranburu, Udaletxean idazkari izana, Leandraren semea zen, eta beraren iloba; bestalde, Leandrak hiru alaba erlijiosa izan zituen.

Haurtzaroan Seguran bizi izan zen Iñaxio Mari, baina egonaldi luze samarren bat edo beste Zerainen ere egin izan zuen amonarenean, Zerainen maisu eta sakristaua zen osabaren eskola-elizetara joanez. Latinikasketak Arantzazun hasi zituen (1868-1869) Aita D. Albeniz esklaustrotuarekin, gero Oñatin jarraitzeko. Hemen zegoela, Jesusen Lagundian sartzea erabaki zuen, eta aitak, Esteban Zurbanorekin mintzatu ondoren (honen bi seme Migel eta Ramon jesuita izan ziren), ireki zizkion bideak. Hurrengo prestaketa-ikasturtea Donostian emanda izan zen onartua Lagundian, hemeretzi urte zituela⁹⁹.

1871n Poyanne-n (Frantzia) hasi zuen nobizio-aldia. Ikasketa humanistikoak (bi urte) eta Filosofia egin zituen (hiru urte). 1878-1881.etan Galiziako La Guardian egon zen irakasle gisara, Aritmetika eta Gramatika irakatsiz¹⁰⁰. 1881ean Oña-ra doa Teologia egitera, aurreko urtean jarri baitziren bertan josulagunak garai bateko beneditarren monasterioan. Hiru urte egin zituen han, eta 1884an apaiztu zen bertan (1884-07-27). Beste urtebeteren buruan amaitu zituen ikasketak, eta Loiolan bete zuen “hirugarren probaldia” deritzana¹⁰¹.

Eman zitzaion lehen lana Bilboko “El Mensajero”-ren Administrazioa izan zen, bertako laguntzaile eta gero zuzendari gisa bost urte jardunez. Bilbon egin zuen, 1888an, bere profesia nagusia. Administrazio hura uztean Burgos-era bidali zuten Nagusiek, eta hiri honetan emango zuen ondoren bere bizialdi osoa (1891ko irailetik 1935eko urtarrila arte)¹⁰².

Burgos-ko hirian, La Merced-eko Egoitzan, bete zuen lanez eta ahaleginez bere bizitza: pobreak, gazteak, presoak eta gaixoak izan ziren haren lantegia; etxez etxe ibili zen lanean, etengabe. Bere pastoralean lau eremu izan zituen maiteenak: langileriaren heziketa kristaua (igandero ehunka langile biltzen zen berak antolatutako katekesi-bileretan), jaiera eukaristikoa (kanpaina eta jardunaldi eukaristikoak), Mariaren Lagunarteak (gaz-

Orain arte Santutarako prozedura ireki zaion segurak bakarra Aita Ignazio Maria Aranburu josulaguna da. Seguran jaio zen, 1852an; josulagun egin (1871), eta bizialdirik luzeena Burgos-en eman zuen, bertan hil zen arte (1935).

te kristau ekintzaleen elkarteak) eta behartsuen laguntza (lagunez lagun, familiaz familia). Aranbururen garaiko hainbat ekimen sozial bertatik bertara segi eta sustatu zituen Burgosko hirian.

II. Errepublikak Jesusen Lagundia sakabanatu eta Etxeak itxi zizkionean, Aita Aranburu lagun batzuen etxera bildu zen, eta hirian segi zuen, bere aitor-entzule lana Katedralean betez. Une larri hartan, gainera, Euskal Herrira itzuli eta 1932ko udan, hemengo beste hainbat josulagunekin, Arantzazun egingo ditu bere Gogojardunak, Santutegiko haur-oroi-tzapenak berrituz: *...he recordado los tiempos del 69 y 70...*¹⁰⁵. Santusonarekin hil zen Burgosen, 1935eko urtarrilaren 5ean. Lagundiko Nagusiek ondoko hitz hauekin eman zuten haren heriotzaren albistea¹⁰⁴:

El P. Ignacio María Arámburu, varón de encumbrada perfección religiosa y unión con Dios, ha sido modelo de operarios, distinguido por su oración continua y presencia de Dios, por su espiritualidad en la dirección de las almas y formación de las conciencias, su celo múltiple y ardoroso en el fomento de muchas obras apostólicas, su asiduidad al confesonario, su laboriosidad incansable y enérgica, su caridad con los pobres y enfermos, exactitud en seguir la vida de comunidad, devoción a nuestros Santos, amor a nuestra santa vocación; virtudes que continuamente acrecentaba en sus prolongadas visitas al Señor y en la devoción al Corazón de Jesús.



Aste Santuko prozesioak: 1920 ingurukoa izan daitekeen argazki hau une berezia da, izan ere Prozesioetako irudi guztiak herriarekin batera Bolatokian ageri baitira, inoiz gertatu ohi ez den moduan, apropos argazkia egiteko denak taldean bilduta.

Ez zen izan talentu intelektual distiratsua, ezta hizlari aparta ere (biografoek diotenez, *tan trabada tenía aquella lengua suya vasca*), osasuna txarra izan zuen eta hiltzear egon zen behin baino gehiagotan¹⁰⁵; baina langile porrokatua, eta, ezagutu zutenen hitzetan, zinez Jainkozko-gizona¹⁰⁶. Biografoak luze deskribatu ditu Aita Aranbururen espiritualitatean ageri diren bertute ezaugarriak¹⁰⁷. Hauen artean bada azken kapitulu bat beraren Segurako familiari zegokiona eta hona egin zituen bidaiena: oso gutxi etorri zen baina eskutizketa zabala du senitartekoekin, betiere be-reak maitekiro tratatuz¹⁰⁸. Beraren biografian ageri diren hautapen pertsonalen mosaikoan, badirudi apaiz-apostolu baten funtsezko balioak oreka harrigarri batean bizi izan zituela: lana eta otoitza, bakardadea eta harreman sozialak, sakramentuak eta ebanjelizatzea, laztasun pertsonala eta jendeekiko hurbiltasun beroa, eliz bizitza eta arazo sozialak.

1970eko Uztailaren 10az geroztik abian da Aita Aranburu segurarraren beatifikazio-prozesua¹⁰⁹. Dena den, segurar leinargien artera eramateko moduko gizona izan zen gure Ignazio Maria Aranburu hau, eta hona ekarri beharrekoa, noski.

5.5. HERRITARREN JAIERAK

Kristautasunak herritar guztientzako erlijiotasuna izan nahi du, eta ez *élite* txiki batentzako, inoiz mugimendu batzuetan proposatu den bezala (horrelakoak ziren, adibidez, Erdi Aroko kataroak: “garbientzako” erlijioa). Horregatik, herri osoarentzako erlijio-moduek beren lekua izan dute, eta dute, Seguran ere, nornahik bizi izateko eran eskainiak (arrakasta handiago edo txikiagoarekin, noski) eta ospakizun eta jai irekietan beren adierazpidea dutenak. Horrezaz gain, inguruko beste herri guztietan diren azalpen-moduen ondoan, gure herriak izan ditu berariazkoak ere. Guztiaz, zertxobait esanda utzi nahi dugu hemen.



Segurarrak Arantzazun (1962): Arantzazuko urteroko Erromesaldia beti zaïndu izan da herrian. Ohituraz, Mutiloa eta Zerainekin batera egun beretan egiten da Santutegirako joan-etorria.

5.5.1. Urteroko ospakizunak

Gogoratu da lehenago nola Ermiten urteroko ospakizunek beren tokia izan duten erlijiotasun herritarrean, eta horrelakoak ez direla gutxi izan Seguran. Ermiten buruz ari diren liburuko ataletan ikus ditzake xehetasunak irakurleak.

Horien ondoan, noski, eliza handietako ospakuntzek, eliz Liturgia ofizialarekin zihoazenak, ere bere leku ederra izan dute herrian, hasi Urte Berri egunetik eta Gabonak arte. Batzuek txikiak ziren (San Blas, Kandelaria, Beheko Gurutzekoak, etab.), besteak jai handiz ospatuak (San Antonio denbora batez, San Isidro, etab.); bazeuden, aipatutakoak bezala, egun betekoak, jai osoak eta jai-erdiak, eta ez zen falta hilabete edo aste-bete osokorik. Jai edo ospakizun batzuk herri osoarenak ziren, baina bazeuden bestelakorik ere, herritar batzuentzako bereziki paraturik, Antonio-tarrenak, Mariaren Alabenak, etab. Ospakuntza bereziagoek kalera ere ateratzen ziren, prozesioan edo Meza-ondoko ospakizun kaletarretan (mokaduren bat eskainiz, jolasak antolatuz, etab.); baina, horien ondoan, eliza barruko ospakuntza liturgikoak ere argiak eta jendetsuak ziren, 1940-1960.etan, Jaunartze Jeneraletan (goizeko zazpi eta erdietan hilerro Elkarte indartsuenek izan ohi zuten halakorik).

Ospakizun orokor edo berezituak modu unkiagarrian erakusten zuten kristau fedearen Segurako gizartekotasuna. Hor zituen erlijiotasun hark bere indar (erakarmena, elkartasuna, antolaera soziala) eta ahuldadeak ere (nolabaiteko bortxa, pertsonalizazio ahula, arrakasta errazegia).

Urteko egutegia oparora zen ospakizunetan. Erregeak, Garizumako Sermoi eta Misioak, Aste Santua, Korputz Kristi, Maiatzeko Lorak, San Antonio, San Joanak, Portziunkula, Santu Guztiak eta Hildakoen Eguna, San Nikolas, Sortzez Garbiaren Bederatziurrena, Gabonak. Eta tartean-martean agertzen ziren jai-egun apalagoak: Igokundea, Jesusen Bihotza, Doloretako Ama, Santiago, etab.

Batzuk bereziki luzituak ziren: Aste Santua zer esanik ez, baina baita Korputz Kristi ere, eta Andre Mariaren Maiatza... Herritar bakoitzak izan zezakeen maiteago zuen jaien bat. Eliz Elkarretek elkarren lehian ibili ohi ziren, bere Santu edo Jaiari laguntzen, erakargarria izan zedin, elizan bertan eta ahal zenean handik kanpo ere.

Hortaz, fede-bizitza ez zen egunerokotasunaren urmalean galtzen, baizik eta bere une "beroagoak" ere bazituen. Oro har, urteroko egutegia alde aurretik erabakitako egitaraua zen, baina unean uneko ezustekoak izan zitzaizkeen: sermolari dotore bat, kanta berriak, apainketa berriak, etab. Azkenean, herritar asko zebilen, urtearen bueltan, ospakizun haientan, orduak sartuz eta ospakizunak bizituz.

5.5.2. Kanpoko harremanak

Eliz Elkarre bakoitzak herritik kanpoko harremanak ere izan zitzaizkeen, eta horien arabera, ibilaldiak eratzen ziren Elkarte horietan, Biltzar edo Ospakuntzaren bat tarteko zela: Antoniotarrak Zarautza joango ziren, Hirugarrendarrak, berriz, nahikoa sarri ospatu ohi ziren Eskualde, Probintzia edo Euskal Herriko Batzar handietara, Ekintza Katolikoak ere halakorik izan ohi zuten... 1950-1960.etan Arantzazuko Igoerek indar handia hartu zuten, eta gazteak -mutilak bezala neskak ere- talde handitan joan izan ziren, baita Seguratik ere. Bestalde, erlijiotasun pertsonaliza-



Elizako ataria: Garaí batean eliza honetan ematen zitzaien lurra Segurako hildakoei. Gerora, Goiko edo Beheko Atarietan egoten zen gorpua Hileta-Mezakoan, eta gaur egun biziékin batera atari honetatik sartzen dira zenduak, Meza ondoren hilerrirako bidea hartu aurretik.

tuago baten bila, Gogojardunak ere oso indarrean egon ziren, gazte eta helduen artean: Arantzazu, Loiola edo Donostia izan ziren horretarako aukera onak.

Dena den, Seguran betidanik egon da indarrean, eta herri osoarentzat balio izan du, Arantzazuko Peregrinazioak, Eliza ez ezik Udala ere buru dela urtero egin izan denak. Santutegiko historialari zaldibitarrak, Aita J. A. Lizarralde, ez zuen baztertu Segurak Zerain eta Mutiloarekin batera Erromesaldi horrekin erakutsi duen leialtasuna¹¹⁰. Usadio horren arrastoan parte hartu izan du Udalak ere Erromesaldian, eta horren lekukorik franko bada Udaletxeko Akten liburuetan. Adibidez, 1915eko hau, Zaindaritzaren aldeko kanpainaren barruan zegoena, noski¹¹¹:

Habiéndose señalado la fecha de cuatro de Septiembre próximo para que tenga lugar la Peregrinación anual al venerado Santuario de Aránzazu, acordó unánimemente la Corporación patrocinar en forma oficial, renovando así una costumbre tan antigua como piadosa, y, en su consecuencia, que una representación del Ayuntamiento encabece la Peregrinación, invitando a las Corporaciones Municipales de las vecinas villas de Cerain y Mutiloa, por si en igual forma, desean sumarse a la Peregrinación, y dar cuenta de estos acuerdos al Rdo. Padre Guardián de Aránzazu.

6. AZKEN BEGIRATUA

Honainoko hauek izan dira gure historia erlijiosoan azpimarraturik utzi nahi izan ditugunak. Irakurleak honez gero sumatu duenez, albiste anitz bada eremu jakin honetan, eta bildu da hemen zertxobait. Hala ere, herriko historia erlijioso orokorra oso egiteko geratzen da oraindik, eta Segurak badu horretarako artxibategi eta paperik sobran.

Hiribildu hau, mendeetan zehar izan dituen eliz erakunde eta antolakuntzagatik, biziki interesgarria gertatzen da tokiko historia erlijioso erdugarri bat egiteko. Ikertzaile baten zain dago hori, Seguran, Iruñean nahiz Gasteiz edo Donostian, Artxibo eliztarretan bezala zibiletan. Baina erabat galduta edo erdi galduta dugun iturriak bada, baita iragan berri den mendekorik ere. Batez ere, eliz Elkarteetako paperak badirudi herriko familietan geratu direla behin baino gehiagotan. Aurkitu eta biltzekoak dira horiek, behar den artxiboan egon daitezen. Orrialde hauetatik ere egiten dugu horretarako deia.

Herriko erlijiotasunaren mendetako bere isurian, klase sozial denek egin dute beren ekarpena, lanetan, dirutan, fedean, otoitzean. Batzuetan eskuzabal, bestetan norbere interestxoia ere bilatuz, laguntza emanez eta eskubideak zaindu edo finkatuz. Mende horien buruan, ondare bikoitza utzi diete belaunek ondoko belaunei, guganaino heldu arte: espirituzkoa, alde batetik, sinismen eta fedezko atxikimenarena, eta materiala, bestetik, bere eraikin erraldoi nahiz apalagoetan, mota ezberdinetako ondasunetan.

Erljiotasunaren bizipen historikoa ezagutzea premiazkoa zaigu, geure iragana ulertzeko, baita pertsonalki bizipen erlijiosoak galdurik denean ere: nolabait esateko, erlijiotasun horren ezagutzak iraganeko segurarren kontzientzia isilduak argi diezazkiguke, partez bederen. Ez da gutxi, iraganeko herritarren giza izaera antzeman ahal izateko. Nola asmatuko dugu segurar anonimo bakoitzak bere fede gordean bizi izandakoa ezagutzen?



Belengo Ama, edo Ama Haurdunen Andre Maria: Segurako herritarren jaieretako bat izan da Goiko Portaleko Andre Mariarekikoa.

Hemen gaingiroki eta labur jorratu ditugunen artean, aipatu besterik ez dugun alde asko dago herriko historia erlijioso honetan, aztertu behar-ko litzatekeena (sendietako erlijiotasunaren historia edo katekesiarena, adibidez); baina, bistan dago, lehenengo ekinaldi honek ez duela gehiagotarako egokierarik eskaintzen. Etorriko da aukera hoberik eskas geratu direnei beren lekua eskaintzeko.

Oraingoz jakin dezagun historia erlijiosoan gune nagusiak non egon diren: Parrokiako barne-egitura instituzionalean, Komentuan, beste Komunitateetan, eta -oso gogoan hartuz- herritarrek izan dituzten eliz Elkartea eta jaiurretan. Gure herriko gogoia eta munduaren eta norberaren ulermena egon dira hor jokoan.

Bibliografía

(1935): *Homenaje a la Seráfica Provincia de Cantabria*. Aránzazu.

(1974): *Sacramentum Mundi*. *Enciclopedia teológica*. Barcelona: Herder. V, 905-1028.

(1995): *Donostiako Elizbarrutiko izendegia*, 1995.

ARANA, M. J. (1992): *La clausura de las mujeres*. Bilbao: Mensajero.

ARRINDA ALBISU, A. (1992): *Los vascos de la magia al animismo*. Bilbao: BBK/Instituto Labayru.

ASTIAZARAIN ACHABAL, M. I. (1998): *El Convento de la Purísima Concepción de Segura. Estudio Histórico-Artístico. (Contribución al V Centenario de la Fundación de la Orden de Concepcionistas)*. Donostia-San Sebastián: Euskalerrriaren Adiskideen Elkartea.

AUZ TRUEBA, R. (1942): *El Apóstol de Burgos. Breve reseña biográfica del P. Ignacio María Aramburu*, S. J. Burgos: Imprenta Aldecoa.

BARANDIARAN, J. M. (1923): *La religion des anciens Basques*. Enghien: Maison Saint-Augustin.

BARANDIARAN, J. M. (1960): *Mitología vasca*. Madrid: Minotauro.

BARANDIARAN, J. M. (1972): *Diccionario ilustrado de mitología vasca*. Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca.

BARANDIARAN, J. M. (1972...): *Obras Completas*. Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca.

BOEV: *Boletín Oficial Eclesiástico de Vitoria*.

BOOV: *Boletín Oficial del Obispado de Vitoria*.

DIAZ DE SALAZAR, J. M. (1985): *Colección diplomática del Concejo de Segura* (Guipúzcoa). T. I (1290-1400). San Sebastián: Eusko Ikaskuntza/Sociedad de Estudios Vascos.

ELIADE, M. (1974): *Historia de las religiones*. Madrid: Cristiandad.

GARMENDIA, J. (1973): "Un suceso de 1872 en Segura", in: BRSBAP. 1973, 4, 630-633.

GOÑI GAZTAMBIDE, J. (1973): "Pamplona, Diócesis de", in: DHEE. III, 1872-1876.

GOÑI GAZTAMBIDE, J. (1989): *Historia de los Obispos de Pamplona. T. VIII: Siglo XVIII*. Pamplona: Gobierno de Navarra.

GOÑI GAZTAMBIDE, J. (1989): *Historia de los obispos de Pamplona. S. XVIII*. Pamplona: Gobierno de Navarra.

HIJAS DE LA CARIDAD (1998): "Residencia San Juan, de Segura", in: *Hijas de la Caridad 1998*: 272-278, 468.

HIJAS DE LA CARIDAD (1998): *Pequeña historia de las Comunidades y sus Obras existentes en 1998*. [San Sebastián]: Provincia de San Sebastián.

INSAUSTI, S. (1964): *Las Parroquias de Guipúzcoa en 1862*. San Sebastián: Imprenta de la Diputación de Guipúzcoa.

JIMENO JURIO, R.: *Fundamentos de la piedad popular: Advocaciones y culto a los Santos en la Navarra primordial*. (Argitaratzeko).

LARDIZABAL, Sor María de Sta. Isabel; MENDIZABAL MUXIKA, M. (1990): *Reseña histórica del Convento de la Concepción de Segura, con motivo de la restauración de 1990*. (Edizio polikopiatu mugatua).

LIZARRALDE, J. A. (1950): *Historia de la Virgen y del Santuario de Aránzazu*. Oñate: Ed. Aránzazu.

- MADARIAGA ORBEA, J. (2001):** "Muerte y mentalidad en el ámbito rural del País Vasco a fines del Antiguo Régimen", in: *Cuadernos de Investigación Histórica*. 18, 2001, 32-34.
- MADARIAGA ORBEA, J. :** "Religiosidad y vida eclesial en Lazkao (siglos XVI al XIX)", in: *Lazkao bizi*. Lazkao: Udaletxea. 5. faszikulua. 18-19.
- MAÑARICUA, A. E. (1951):** *Las nuevas Diócesis de Bilbao y San Sebastián y sus antecedentes históricos*. Salamanca. *Memorabilia*. 5, 1934-1936, 368-369 (Aldizkaria).
- OSTOLAZA, I. (1981):** "La organización eclesial guipuzcoana durante la Edad Media", in: (1982): *Donostiako Forua eta bere garaia*. Donostia (1981eko Urtarrilaren 19tik 23ra). Donostia: Eusko Ikaskuntza. 172.
- PEREZ ARREGUI, J. M. (1941):** *El Padre Ignacio María Arámburu de la Compañía de Jesús*. Bilbao: El Mensajero del Corazón de Jesús.
- RUIZ DE LOIZAGA, S. (2000):** *Documentación medieval de la Diócesis de San Sebastián en el Archivo Vaticano*. (Siglos XIV-XV). Roma (Colección Tuesta, n. 2).
- SOLAGUREN, C.:** *Los franciscanos vasco-cántabros en el siglo XIX. Vicisitudes y nomenclador bio-bibliográfico*. (Argitaragabea).
- SORAZU, E. (1980):** *Antropología y religión en el Pueblo Vasco*. San Sebastián: Caja de Ahorros Provincial.
- URIBE, A. (1960):** "Estado de la Provincia de Cantabria en el siglo XVII", in: *AIA*. XX, 1960, 5-77, 205-242, 537-572.
- URIBE, A. (1996):** *La Provincia franciscana de Cantabria. II. Su constitución y desarrollo*. Arantzazu: EFA.
- VALLE, F. del (2001):** "Arámburu, Ignacio María", in: (2001): *Diccionario Histórico de la Compañía de Jesús*. Roma/Madrid: IHSI/Univ. de Comillas.

Oharrak

- 1: Erljioen historia handietan, edota erlijio-hiztegi entziklopedikotan ikus daitezke honen berriak. Ik., adibidez, (1974): *Sacramentum Mundi. Enciclopedia teológica*. Barcelona: Herder. V, 905-1028. Bertan aurkezten dira erlijio-kontzeptuaren analisi bat, erlijioak izan dituen kritikak, berorren fenomenologia, filosofia, psikologia, soziologia, teologia, historia edo erlijioen ikaskuntza konparatuen "status quaestionis" laburrak. Maisu ezagunen bat nahia go bada, begira ELIADE, M. (1974): *Historia de las religiones*. Madrid: Cristiandad.
- 2: Historiaurretik Euskal Herriak izan zuen erlijiotasunaz hainbat idatzi da, Barandiaranek ikerlan hauek sustatu zituenetik. Ikus bitez, nahi izanez gero: BARANDIARAN, J. M. (1923): *La religion des anciens Basques*. Enghien: Maison Saint-Augustin. ID. (1960): *Mitología vasca*. Madrid : Minotauro. ID. (1972): *Diccionario ilustrado de mitología vasca*. Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca. Hiru idazlanok Barandiaran-en *Obras Completas*-en lehen liburukian aurki daitezke. Gainera, gaiari bere osotasunean heldu nahi izan dioten bi lan ditugu eskueran: SORAZU, E. (1980): *Antropología y religión en el Pueblo Vasco*. San Sebastián: Caja de Ahorros Provincial. ARRINDA ALBISU, A. (1992): *Los vascos de la magia al animismo*. Bilbao: BBK/Instituto Labayru.
- 3: Etniker Taldeak, Segura inguruko bere azterlanetan (Segura, Beasain) bilduta du Etnografiatik gure herriko erlijiotasunaz hurbiltasun handiz (eta ez hurbiltasun geografikoz bakarrik, noski) esan daitekeena. Etniker-en lan erraldoian XIX. alea izango da, adierazi denez, erlijiotasun herritarrari dagokiona.
- 4: Kristautasunaren Euskal Herriko sarreraz luze eztabaidatu da, baina, zoritxarrez, Euskal Herriko Eliza katolikoaren historia orokor egoki eta oso baten faltan gaude oraindik.
- 5: Ik. MAÑARICUA, A. E. (1951): *Las nuevas Diócesis de Bilbao y San Sebastián y sus antecedentes históricos*. Salamanca. 6-14. or.
- 6: JIMENO JURIO, R.: *Fundamentos de la piedad popular: Adoraciones y culto a los Santos en la Navarra primordial*. (Argitaratzeko). 85-86. or. Eskerrak eman behar dizkiot autoreari, bere doktore-tesi hau begiratzeko aukera eman didalako, bai puntu honetan eta aurrerago aipatuko diren beste zenbaitetan ere.
- 7: Mañaricua 1951: 20-22. Jimeno Aranguren, op. cit., 97.
- 8: GOÑI GAZTAMBIDE, J. (1973): "Pamplona, Diócesis de", in: DHEE. III, 1872-1876.
- 9: Erdi Aro hartako Gotzainen tokiko agintea, Bizkaian bezala Gipuzkoan, zenbaterainokoa izan ohi zen ikusteko: Mañaricua 1951: 25-26, eta: OSTOLAZA, I. (1981): "La organización eclesial guipuzcoana durante la Edad Media", in: (1982): *Donostiako Forua eta bere garaia*. Donostia (1981eko Urtarrilaren 19tik 23ra). Donostia: Eusko Ikaskuntza. 172.
- 10: BOEV. XIII, 1877, 161-171.
- 11: BOOV. 1925, 22-23.
- 12: Ik. *Donostiako Elizbarrutiko izendegia*, 1995. 77. or.
- 13: Agirre Sorondok liburu honetan bertan ematen dituen erreferentzia kronologikoak dira laukira ekarri ditugunak.
- 14: MADARIAGA ORBEA, J. (2001): "Muerte y mentalidad en el ámbito rural del País Vasco a fines del Antiguo Régimen", in: *Cuadernos de Investigación Histórica*. 18, 2001, 32-34.
- 15: Madariaga 2001: 23.
- 16: RUIZ DE LOIZAGA, S. (2000): *Documentación medieval de la Diócesis de San Sebastián en el Archivo Vaticano*. (Siglos XIV-XV). Roma (Colección Tuesta, n. 2). 163-164.
- 17: INSAUSTI, S. (1964): *Las Parroquias de Guipúzcoa en 1862*. San Sebastián: Imprenta de la Diputación de Guipúzcoa. 21-24.
- 18: Donostiako Elizbarrutiko Agiritegian gordeta dagoen Segurako Andre Maria Parrokiako artxiboan ikus daitezke Kapilautza hauei buruzko argibide-sortak. Besteak beste guztion laburpena ik. Aipatu artxiboan P011-03, 1779-1869. urteetako erakusten duena. Pasarte honetako datak ez dira derrigorrez fundazio-uneak, baizik eta kasu bakoitzari dagokion artxibo honetako lehen agirienak.
- 19: GOÑI GAZTAMBIDE, J. (1989): *Historia de los Obispos de Pamplona*. T. VIII: *Siglo XVIII*. Pamplona: Gobierno de Navarra. 58, 72-73.
- 20: Insausti 1964: 68.
- 21: Insausti 1964: 11-15.
- 22: BEOV. 1882, n. 30. *Suplemento*. Parrokiak honela sailkatu ziren: Parroquias Urbanas de Término, Parroquias Urbanas de Ascenso, Parroquias Urbanas de Entrada, Parroquias Rurales de Primera,

- Parroquias Rurales de Segunda. Laukiko apaiz-laguntzaileen kopuruari Bikario edo Parrokia gehitu behar zaio.
- 23: Talde hauetako bakoitzak emango da, dagokion tokian, erreferentzia bibliografikorik, baina Mujardin baserrikoaz M. Jauregik eman digun iradokizun horrek bere agiriztapena beharko du, oraingoz eskueran ez dudana.
- 24: Hemen erabiliko ditugun albiste-bildumak ondoko hauek ditugu: URIBE, A. (1996): "La Concepción de Segura", in: ID. (1996): *La Provincia franciscana de Cantabria. II. Su constitución y desarrollo*. Arantzazu: EFA. 417-427. LARDIZABAL, Sor María de Sta. Isabel; MENDIZABAL MUXIKA, M. (1990): *Reseña histórica del Convento de la Concepción de Segura, con motivo de la restauración de 1990*. (Edizio polikopiatu mugatua). ASTIAZARAIN ACHABAL, M. I. (1998): *El Convento de la Purísima Concepción de Segura. Estudio Histórico-Artístico. (Contribución al V Centenario de la Fundación de la Orden de Concepcionistas)*. Donostia-San Sebastián: Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte.
- 25: Uribe 1996: 417.
- 26: Gero aipatu beharko diren auzi eta liskarren nondik norakoa ulertzeko dakargu hona arazo hau. Bestalde, ez da hau batere harritzekoa, Komentu edo Fraidearte berri batekin, Parrokia berri batek bezalaxe, espazio pastoral-ekonomikoaren birbanaketa ekarri ohi zuen, banaketak izan zitzaizkeen gatazka guztiekin.
- 27: Nikolas Onramuño segurarrak, mojen aholkulariak, ongi ikusi zituenez Zaingorik gabe geratzearen abantailak eta era berean Segurako eliz Kabildoak ere. Hala ere, horrek ez du esan nahi mojen independentzia hartan (fraideek babestua ere bazen eta) arriskurik ikusten ez zutenik, baina okerragoa izan zitekeen Lazkaoko jaunaren Zaingoa, adibidez. Ik. Astiazarain 1998: 55, 102.
- 29: ARANA, M. J. (1992): *La clausura de las mujeres*. Bilbao: Mensajero. 153-167.
- 30: Uribe 1996: 420.
- 31: Parrokia ondoko Moja-Etxe zaharraren deskribapen-saio bat ik. Mendizabal 1990: 4-5.
- 32: Astiazarain 1998: 10.
- 33: Uribe 1996: 421.
- 34: Orduan jasotako eraikinen deskribapena: Mendizabal 1990: 9-11; Astiazarain 1998: 17-21.
- 35: Mendizabal 1990: 11.
- 36: Astiazarain 1998: 14.
- 37: Astiazarain 1998: 14, 42, 45 (ehorzketen arazoa), 102 (oro har, Parrokiaren eskubideei buruzkoa).
- 38: Astiazarain 1998: 45, 47.
- 39: Astiazarain 1998: 102, 178.
- 40: Astiazarain 1998: 49-50.
- 41: Lan hauen deskribapenerako ik. Astiazarain 1998: 67-79, 81-97.
- 42: Emakume honen albisteak: Astiazarain 1998: 23-25, 57-59.
- 43: Uribe 1996: 424-425.
- 44: Nikolas Onramuño segurarraren jokabidea erabakigarria izan zen arazoaren alde juridiko eta ekonomikoak zaintzeko. Apaiza zen Onramuño hau, eta Beatriz-en amaren neba; auzi hauetan garbitasun eta bihotz-zabaltasunez jokatu zuen, bai Beatriz-en bokazioaz zalantzak argitzean, eta berdin gero korapilo nahasiagotan ibili behar izan zuenean ere. Ik. Astiazarain 1998: 27, 32, 33, 44, 53-55.
- 45: Uribe 1996: 425-426. 1687-1703.etan egindako lanen deskribapena: Mendizabal 1990: 9, 12-13.
- 46: Lardizabal 1990: 43, 46, 47, 48.
- 47: Mendizabal 1990: 102.
- 48: Mendizabal 1990: 74, 88.
- 49: Uribe 1996: 418, 427; Mendizabal 1990: 7. Ik., gainera: URIBE, A. (1960): "Estado de la Provincia de Cantabria en el siglo XVII", in: *AIA*. XX, 1960, 410, 556.
- 50: Uribe 1960: 424; LIZARRALDE, J. A. (1950): *Historia de la Virgen y del Santuario de Aránzazu*. Oñate: Ed. Aránzazu. 197.
- 51: Lardizabal 1990: 29-31.
- 52: Lardizabal 1990: 32, 35.
- 53: SOLAGUREN, C.: *Los franciscanos vasco-cántabros en el siglo XIX. Vicisitudes y nomenclador bio-bibliográfico*. (Argitaragabea). 340-341 (2000ko idazketaren kopian).
- 54: Solaguren s. d.: 352, 361-363.
- 55: Solaguren s. d.: 363-365.
- 56: Solaguren s. d.: 357-358.
- 57: Lardizabal 1990: 57.
- 58: GARMENDIA, J. (1973): "Un suceso de 1872 en Segura", in: *BRSBAP*. 1973, 4, 630-633.
- 59: Mendizabal 1990: 3.
- 60: Julene Etxeberria sorkundetarrak (Sor Maria Arantzak) eskuratu digun moja-zerrendatik bildutako datuak dira. Eskerrak, eskuzabalki emandako argibideengatik.
- 61: Hau da behintzat gure paperetatik ondorioztatzen duguna.
- 62: Baserrion izenek badute zalantza-moduren bat: Herrian, uste dudanez, *Mujardin* entzun ohi da gehienbat baina bada *Mojardin* dioenik ere: baserriko sarreran bertan, *Mujardin* ageri da (ez dakit noiz jarrita), baina Segurako mapak *Mojardin* jaso du. Nik hemen *Mujardin* hobetsi dut, herriaren usadio zabalarenengatik (eta arrazoi etimologikoak bigarren mailan utziz). Bestalde, mapan ageri den *Ermanasoro* (susmoa dudanez, berriz ere *etimon*-ak zuzenetsia) baino herritarren *Ermasoro* nahiago izan dut hemen. Kasu hauek eta gainerako toponimia finkapen ofizial baten zain daudela esango nuke.
- 63: GOÑI GAZTAMBIDE, J. (1989): *Historia de los obispos de Pamplona. S. XVIII*. Pamplona: Gobierno de Navarra. VIII, 255-309.
- 64: Goñi Gaztambide 1989: 257, 296.
- 65: Lehen argibide xumeak ezagutzeko, begira: "Residencia San Juan, de Segura", in: HIJAS DE LA CARIDAD (1998): *Pequeña historia de las Comunidades y sus Obras existentes en 1998*. [San Sebastián]: Provincia de San Sebastián. 277-278, 468.
- 66: Hijas de la Caridad 1998: 278.
- 67: Neure oroitzapen pertsonalek diotenez (eta barka bekit neurez jardutea), bospasei urte nituela neu izan nintzen azken ikaslea, viatortarrak alde egin eta Eskola Nazionaletara joan behar izan nuen arte.
- 68: Hemen bildutako albisteak viatortarren Espainiako Probintziako Artxibozainari zor dizkiogu. Eskerrak berari.
- 69: Hiru milako kopuru hori, uste dudanez, Artxiboetan berretsi beharrekoa da.
- 69 bis: Donostia Probintziako artxibotik bidalitako txostenetik hartutako albisteak. (Neure artxiboan).
- 70: Segurako Kapilau frantziskotar hauen zerrendak Arantzazu/Kantabriako Probintzi Kapituluetak paperetan bilatu behar dira. Probintzia horretako Artxibo Nagusi historikoa desagertua denez, moja-komentuetako "patente" deituetatik bildu dira Kapilauen izenak (1689az gerokoak).
- 71: Astiazarain 1998: 16, 24.

- 72: Oraindik ez dut jakin ahal izan noiztandik eta nor izan zen lehenengo apaiz kapilau erabat diozesitarra (hau da, ez frantziskotar edo ohia ez zena).
- 73: *Kristandade* deituaz irakurleak azalpen atsegin eta aldi berean seriorik nahi balu, hona zer begira lezakeen, adibidez: (1985): *2000 ans de Christianisme*. Paris: Hachette. III, 30-35, 70-72, 83-90. G. Duby, R. Rémond, G. Huyghe eta abarren ohar argi eta laburrak.
- 74: MADARIAGA, J. : "Religiosidad y vida eclesiástica en Lazkao (siglos XVI al XIX)", in: *Lazkaon bizi*. Lazkao: Udaletxea. 5. faszikulua. 18-19.
- 75: Zaingo edo Patronatuen Gipuzkoako historia eta XIX. mendeko egoera ezagutzeko, ik. Insausti 1960: 91-124.
- 76: Insausti 1960: 118-119.
- 77: Insaustik jasotako taularen gain geuk kalkulatu (ik. Insausti 1960: 118-124).
- 78: Barrenaren lana liburu honetan bertan.
- 79: Barrena, "Segura: Hiribilduaren sorreratik eskualdeko hegemoniari", liburu honetan 131. or.
- 80: Barrena, 133 or., 53. oh. Arautegia ik: DIAZ DE SALAZAR, J. M. (1985): *Colección diplomática del Concejo de Segura (Guipúzcoa)*. T. I (1290-1400). San Sebastián: Eusko Ikaskuntza/Sociedad de Estudios Vascos. 71-74.
- 81: Jesusen Bihotzarena eta Santiagorena ezik, gainerako data agirizatuak J. A. Garro-ri zor dizkiot. Eskerrak artxibozain adiskideari.
- 82: Ik. (1935): *Homenaje a la Seráfica Provincia de Cantabria*. Aránzazu. 250. or.
- 83: Hirugarren Ordenaz Madrileria bidalitako datua: Frantziskoarren Tolosako Artxiboan.
- 84: *Bandera Antoniana*. 1944, 108. orrialdean gogorazaziko zaigu D. Agirre Artzapeza bat-batean hil zela, 1916an edo, aldarean Antoniotarren Ereserkia elizan denak batera kantatzen ari zirela.
- 85: *Bandera Antoniana*. 1930, 137-139; 1944, 110-113.
- 86: Andre Maria Parrokiako Artxiboa, Seguran bertan.
- 87: Urtetan apaiz-lanean jardundako bat aipatu behar da hemen: Andoni Etxeberria.
- 88: Bi ohar Josulagunen taldeari: Zurbanotarrek bi josulagun izan zituzten, Migel (†1923) eta Ramon (†1949): segurartzat eman ditzakegu, baina biak Iruñean jaiok ziren. Pedro Lardizabal, ostera, Ziburun (Lapurdi) jaiok ziren (hala ere, idazle segurarren artean sartu dugu, hauei dagokien liburu honetako idazlanean). Zerrenda honek Lagundi Berriko josulagun segurar guztiak jasotzen ditu (1814-2002).
- 89: Serapio Intxausti, Segurako elizan sakristau izana, Arantzazuko Santutegian bizi izan zen azken bost urteetan, Hirugarrendar gisara. Joan Ignazio Larrea, besteak beste, Arantzazuko Goardiano/Nagusia izan da (1991-2000), orain, 2000tik hona, Bikarioa da (bigarren Nagusia) eta aldi berean Arantzazu Probintziako Kustodioa (Probintzial-ordeakoa). Hemen, gainera, frantziskotar izandako bi aipatu behar dira: Iñaki Albizu eta Joseba Intxausti.
- 90: A. Ormazabal jaiotzez zegamarra zen.
- 91: Laukian ageri ez den beste datu hau jaso behar da: Kristo Erregeren lau Esclava ere izan dira segurarrak: Maria Jesus Arantzadi (orain "Jesusen Misiolaria" Ameriketara), Felizitas Arantzadi eta Maria Teresa Arantzadi.
- 92: Hurrenez hurren, Komentuan ondoko izen hauek izan dituzte: María de la Encarnación, María de Sta. Clara, María de Sta. Isabel, María de la Presentación, María Arantzazu, María Elena eta Maria Arantza. XIX. Mendean, adibidez, Arrizabalaga baserriko Juliana Telleria San Joakinen komentua honetan izan zen moja, baina hemen XX. mendean profesia egindakoak jaso ditugu bakarrik. Josepa A. Telleria (Pagamuño Handikoa), 1933an sartu eta 1934an sekularatu zen.
- 93: Izen ofiziala: "Soeurs Domicaines de Ste. Cathérine d'Albi" da: Sta. Katalinaren Albiko Ahizpa Domingotarrak (Donostiako Ategorrietan izan zuten Etxe bat (Villa Rosario).
- 94: XX. mendekoak direla esan daiteke (eta, ia seguru, ez daude denak), josulagunetako lehenengoa kenduta.
- 95: I. M. Aranburu-ri buruz erabilitako bibliografia ondoko hau da: AUZ TRUEBA, r. (1942): *El Apóstol de Burgos. Breve reseña biográfica del P. Ignacio María Aramburu, S. J.* Burgos: Imprenta Aldecoa. (32 or.). PEREZ ARREGUI, J. M. (1941): *El Padre Ignacio María Arámburu de la Compañía de Jesús*. Bilbao: El Mensajero del Corazón de Jesús. *Memorabilia*. 5, 1934-1936, 368-369 (Aldizkaria). VALLE, F. del (2001): "Arámburu, Ignacio María", in: (2001): *Diccionario Histórico de la Compañía de Jesús*. Roma/Madrid: IHSI/Univ. de Comillas. I, 311. Guztion artean obra landuena Pérez Arregui-rena da (476 orrialdeko lan mardula).
- 96: Pérez Arregui 1941: 12-13,19.
- 97: Pérez Arregui 1941: 13-17.
- 98: Pérez Arregui 1941: 439.
- 99: Pérez Arregui 1941: 33-37.
- 100: Pérez Arregui 1941: 48-51.
- 101: Aúz 1942: 3-9; Pérez Arregui 1941: 55-59.
- 102: Pérez Arregui 1941: 59-64.
- 103: Aúz 1942: 25-26.
- 104: Aúz 1942: 29.
- 105: Pérez Arregui 1941: 65-80.
- 106: Pérez Arregui 1941: 460-472.
- 107: Pérez Arregui 1941: 93-256.
- 108: Pérez Arregui 1941: 243-256.
- 109: (2001): *Dicc. Hist. de la Compañía de Jesús*. Madrid: Univ. Comillas. I, 211.
- 110: LIZARRALDE, J. A. (1950): *Historia de la Virgen y del Santuario de Aránzazu*. Aránzazu. 430, 523.
- 111: *Actas. 1915-1920* (1915-08-22), 17. or.